



## Euskalkigintzan

Lakuntzan herriko euskalkiari bultzada emateko elkartu dira / 2-3

**Olatzagutiko Udalak etxebizitzaz parte hartze prozesua sustatuko du** / 9

**Adinekoen eta Gurasoen eskolak Irurtzunen, Altsasun eta Olatzagutian** / 7

**Etxarri Aranazko beheko basoan zista bat, trikuharri txikia, opatu dute** / 12-13

**Igandean jokatu da 46. Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorria. Izena ematea zabalik dago** / 16

**Irati Urrestarazuren 'Te flujo' erakusketa urriaren 10era arte lortia kultur gunean** / 23

**BADATOR**

**SAKANAKO  
GIDA  
2022**

**ZURE ESKAERA  
2021EKO  
URRIAREN 28A  
BAINO LEHEN  
EGITEN BADUZU**

**2022  
ONLINE  
DOAN**



110 lakuntzar elkartu ziren herriko euskalkiaz hitz egiteko abuztuan.

# Eman eta zabal ezazu

Herriko euskalkia eta euskara bera Lakuntzan. Euskalkia gero eta gutxiago entzuten dela eta kezka zabaldu zen hainbat lakuntzarren artean. Kezka bera zutenak bat egin eta euskalkia zabaltzeko lanean jarri dira udan. Dagoeneko herriari zabaldutako bi topaketa egin dituzte

**Alfredo Alvaro Igoa** LAKUNTZA

Munduan fruitua emateko eta zabaltzeko. Horixe kantatu zuen Joxe Mari Iparragirrek *Gernikako Arbola* abestian. Munduan bai, baina lehenik Lakuntzan euskalkia herrian eman eta zabaltzeko lanean hasi ziren udan. Lakuntzeko auskias taldean biltzen direnak dira horretan hasi direnak. Han batu diren guztiak "Lakuntzako euskara galtzen" ari denaren kezka dute. Eta kezka, aldi berean, hainbat lakuntzarren artean sortu zen. Alde batetik, Adur, Ainara eta Jose Ramon elkartu ziren, Lakuntzako euskararekin zerbait egin behar zela pentsatuta. Bestetik, Lakuntzar gazte talde batek ere kezka bera zuen bueltaka. Eta Lakuntzako Gazte Asanbladaren baitan ere euskalkiaren egoerak sortu zuen egonezina.

Elkarren berri izan eta elkartzera erabaki zuten. Esan dutenez, "indarrak batu ditugu. Aritu beharrean hemendik pixka bat, hortik beste talde bat... Plana pixka bat antolatu dugu". Eta talde berriari bi helburu jarri dizkiote: "euskalkia berreskuratzeko lana eta euskara gehiago erabiltzea; berdin du euskalkia edo batua, baina euskara". Bakoitzak dakien euskara erabiltzea bultzatu behar ote den galdetuta, argi dute: "batak bestea dakar. Aitzakia bat da euskaldunak batzeko, biltzeko eta euskaraz aritzeko. Euskalkian ez dakienak batuan eginen du, baina euskaraz".

Lakuntzeko auskias taldearen lanak ere beste ertz bat ere baduela jakinarazi digute: "hemengo bertako gauzak jaso nahi ditugu: hizkuntza, kultura, ohiturak... Halako datuak jaso eta bilketa lan hori egin".

**"EUSKALKIA BERRESKURATZEKO LANA ETA EUSKARA GEHIAGO ERABILTZEA DA HELBURUA"**

**Antolaketa**

Taldekideak garagarriaren akabera aldera hasi ziren elkartzeko. Hasieran hamabostean behin ziren bilerak, baina astero izatera pasa dira. Tximonena tabernako terrazan egin dituzte bilerak, ostiraletan, 18:30 aldera. Jakina, euskalkiari bultzada eman nahi dion edozein lakuntzarrek ateak zabalik ditu. Taldekideek euskalkia biziberritzeko zer egin daitekeen aztertzen dute bilera horietan eta "pittekan gauzak egiten joan gara". Gainera, euskalkian aritzeko aukera ere baliatzen dute.

Hala, agorriaren 25ean, ekitaldia egin zuten. Data ez zuten nolanihi aukeratu. Lakuntzako festak ospatu balira, asteazken hura Euskararen Eguna litzateke. "Lakuntzako hizkera jendea irakutsi nahi genion. Ez zekitenei irakutsi nahi genien", azaldu dute taldekideek. Horretarako, "elkartu genituen jende heldua, euskalkia dakiena, ez dakitenekin".

**Topaketak**

Guztira 110 herritar elkartu ziren plazako estalpe azpian, kasik hamar lakuntzarretik bat han zegoen. Guztiak talde txikitara banatu zituzten eta gai batzuk eman zizkieten haien inguruan hizketatzeko. "Batzuk euskalkian aritzen ziren bitartean, besteak aditu eta ikasten ari ziren". Mintzapraktika saioa izan zen hura.

Parte hartzaileak emaitzarekin "oso pozik" gelditu ziren. Taldekideek diotenez, "jende larria eskertua sentitu zen, joan ginelako beraiei eskatzera etortzeko guri erakustera. Dagoeneko urte hauekin eta, jo...". COVID-19 gaitzak eragindako pandemiak sortutako egoera ere sartu dute lehen saio haren balantze positiboan: "egoeragatik-edo, jende asko ez genuen ikusten, hoberean duela urte bat. Jendea berriro ikustea-eta, oso gustura". Taldekideak ase zituen beste kontu bat: "hainbat belaunaldi elkarrekin ikustea..."

Halako topaketen antolaketa "herria elkartzeko aitzakia bat



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



izan da. Urte bat jendea ikusi gabe egon ondoren, aitzakia izan da hainbat adinetako jendea elkartu eta hitz egiteko. Apika, sekula hitz egin ez duzun norbaitekin hitz egin. Eta hori oso polita izan da ere. Herri nortasuna ere horrela egiten da. Gauden egoeran herri nortasun hori indartzea oso garrantzitsua da".

Eta etorri zen bigarren saioa. Ostiralean izan zen. Kultur etxera deitu zituzten lakuntzarrak eta han dermioei buruzko saioa izan zuten. Atzera ere, taldekideek hots egin zuten jendea eta 70 bat pertsona elkartu ziren. Lakuntzako dermioen izenak aitzakia hartuta bildu ziren. Toponimiaz dakiten lakuntzar batzuk hitz egin zuten. "Horren aitzakiarekin gazteok ikasiko dugu historia, dermioak... denetarik helduengandik", esan du taldeko gazteetako batek. Izan ere, hurrengo hitzorduetan "herriko historia, kultura, ohiturak... horiek denak landuko ditugu. Helduek badakite".

Taldekideek jakinarazi dutenez, "jendea gogoekin dago, hurrengo noiz den jakin nahian". Hurrengo hitzorduak badu data, lastailaren 22an izanen da. Aurreneko aldian bezala, euskalkia dakitenak eta ez dakitenak elkartuko dituzte talde txikitik eta proposatuko zaizkien gaien inguruan hizketatuko dira.

### Ikasteaz

Azaldu digutenez, sortzen diren mintzapraktika multzo horietan "bi talde daude: ama hizkuntza euskalkia dutenak eta erabiltzen dutenak, eta euskalkia pixka bat edo ezer ez dakigunak. Hor dago lana: lehenengo euskaldun zahar horiek lotu, gero besteak eta hainbat talde egin. Eta denek parte hartzera".

Euskalkia ikasteko prozesu naturalari eman diotegarrantzia: "azkenean, historian beti izan da: jendeak hitz egitea eta aritzea. Horrela pasatzen da hizkuntza belaunaldiz belaunaldi. Idatziz ez da egin. Orduan, bakarrik hitz egitea. Horretarako egiten dugu mintzapraktika. Belarria egiteko lehenbiziko, eta, ondoren, guk besteek hitz egiteko".

### Euskalkia

Herriko hizkeraren errealitatea zein den ere argitu dute taldekideek: "Lakuntzako euskararen jende helduak egiten du. Lakuntzakoak betikoak. Beraien artean aritzen dira. Baina 60 urtetik behera, batua,



Adin guztietako jendea elkartu zen plazan.



Lakuntzarrak bigarren saioan. UTZITAKOIA

Badaude familia batzuk Lakuntzako euskararen hitz egiten dutenak. Baina gehienak, dagoeneko, batua".

Euskalkiaren transmisioaren eten horren zergati batzuk ere eman dituzte: "batetik, etxean ez da transmititu. Edo ez duzu ikasteko aukerarik izan. Gurasoetako bat beste herri batekoa izanda, beste euskalki bat hitz egiten zen etxean eta nahasketak sortzen dira. Eta kanpoan egiten ez denez, gaur egun ez duzu ikasteko eredurik. Etxean ez bada".

## "KALEAN EGITEN EZ DENEZ, EUSKALKIA IKASTEKO EREDURIK EZ DUZU; ETXEAN EZ BADA"

Gazte batzuek euskalkia etxean jaso dute, baina, orokorrean, gazte lakuntzarrek euskara batuan hitz egiten dutela azaldu dute. Taldeko gazteetako batek azaldu duenez, "niri beraiekin (taldeko gazteekin) Lakuntzako euskaraz hitz egitea ateratzen zait. Eta kanpoan geroan eta gehiago Lakuntzako euskaraz, baina, beno, ahal duguna".

Euskararen erabileraren kontura Euskal Herrian gertatzen direnak Lakuntzan ere errepikatzen dira: "azkenean, toki askotan bezala, ohitura. Nahiz eta askok euskaraz jakin, batek ez baldin badaki euskaraz, denak erdaraz. Berarekin gaztelaniaz hitz egitera ohitzen zara. Azkenean, geroz eta gehiago dena erdaraz".

Taldean badute filologoa: "handik eta hemendik euskalkiari buruzko informazioa bilduten ari gara eta zer ezaugarri dituen ikusten. Nik ez dakit Lakuntzako euskara. Horretarako nago hemen, ikasteko". Lakuntzako nolako euskalkia den galdetuta, azaldu dutenez, "Arbizuko eta Etxarrikoekin oso antzekoa. Etxarri hitzen bukaera e-z da, Arbizon a-z, eta guk ere e-z egiten dugu. Baina ez dira berdinak. Etxarri etxie esaten da eta guk, berriz, itxe. Ez da berdin-berdina". Bestetik, jakinarazi dutenez, euskalkian ari direnen ahots batzuk jasoak ditu Lakuntzako Udalak Labrit ekoiztetxearen bidez.

Lakuntzan euskaraz zein osasun duen galdetuta, taldekideek

azaldu dutenez, herria "beti izan da euskalduna, eta orain ere. Kanpotar asko etorri ziren. Baina Lakuntza euskalduna da. Jakin, lakuntzar askok dakite euskara. Jakin bai, baina erabilerara beste kontu bat da". Eta erabiltzen den euskara batua dela azaldu dute aho batez.

### Luzerako ikuspegia

Lakuntzako euskalkiaren alde aritzen diren taldeko kideek argi dute beraiena ez dela egun bateko kontua: "segitzeko asmoa dugu. Izan dadila luzerako, eta jendeak ikas dezala. Ikusiko dugu hemendik bizpahiru urtera nola gauden. Printzipioz, lanerako gogoekin gaude. Kristoren taldea gaude. Eta orain pixke-pixkekan hasten garen lana egiten eta jendea ere animatzen den".

Ez da beraz hilabete gutxitako lorea izanen taldearen jarduna. Eta, antza, ez diete utziko: "dendan galdetu didate noiz egin behar ote dugun hurrengo" azaldu du taldekideetako batek.

Lakuntzarrak "gogotsu" sumatzen dituzte euskalkiaren aldeko dinamikarekin. "Hori da lehenengo, ilusioa, aurrera egiteko ilusioa. Jendea gogotsu egoteak ematen dizu indarra aurrera segitzeko. Gero ikusiko dugu". Orain arte arlo horretan ezer gutxi egin dela kontziente dira. Eta errepikatu dute: "hau luzerako da". Haien asmoa da "geldi geldi joatea, jendea ez aspertzeko. Topaketak egin jendea gustura sentitzeko, gustura joateko. Beta dago, prisarik ez dugu".

Beraien lana baloratzeko "goiz" dela esan dute taldekideek, "guaixe eman da zabaltzera". Baina jasotako erantzunarekin "aurrea egiteko ilusioz" daude.

## Euskalkiko hitzak

**Taldekideei Lakuntzako euskalkiko hitz bana eskatuta, honako zerrenda osatu da:**

- Aiaupenani
- Ganbelue
- Pirrinkeka
- Ganboikue
- Pexixe
- Argisentiye
- Gexkixe
- Goantziyek



ASTEKOA

MIKEL MAZKIARAN

## Zinetarrak

Irailaren 25ean amaitu zen Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren 69. edizioa. "Zinemira" atalean *Kuartk Valley* dokumentala aurkeztu zen, Kuartangon filmatu zen western generoko istorioa. 2005ean, Jose Luis Murgak eta Oier Martinez de los Santosek Arabako Kuartango bailarako herritar guztiak animatu zituzten *Algo más que morir* ("Hiltzea baino zerbait gehiago") izeneko *western* baten grabaketan parte har zezaten. Oztopo asko gainditu ondoren, filma Almería Western Film jaialdian estreinatu zen eta sari nagusiak eskuratu zituen. Maider Oleaga zuzendariak *Kuartk Valley* metraje luzeko dokumentalean islatu zuen Arabako herri hartan western bat grabatzeko esperientzia bitxi hura. Filma Kuartangoko zinema eta bizilagunei egindako omenaldia da. Bertan erakutsi zuten esfortzua eta elkarlana islatzen duelako.

Sakanan hainbat film grabatu dira. 70. hamarkadan Richard Lester zuzendariak *Robin eta Marian* pelikula grabatu zuen Urbanan. Horrez gain, *Patton*, filmaren zenbait eszena leku

## IMAJINA DEZAGUN BAT-BATEAN GURE HERRIA ZINE PLATO BATEAN BIHURTZEN DELA

filmatu zuen Altsasun, *La buena nueva* filmean.

Altsasuko Iortia kultur etxean zine denboraldi berria hastear dagoenez, imajina dezagun bat-batean gure herria zine plato batean bihurtzen dela. Zer pelikula filmatu nahiko genuke?

Kuartangon bezalako *western* bat, komediaren bat, ala amodiozko istorio bat? Eta, batez ere, zein pertsonaia interpretatu nahiko genuke?

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehenez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu-luka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Migrazioak eta osasun mentala (I)

#### ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Migratzea "bizitzeko modu bat" utzi eta beste berri bat hastea da. Pertsona migratzaileei, haien senitartekoei eta harrera gizarteei eragiten dio. Migratzea ezezaguna den herrialde batera iristea ere bada: arrotza historian, hizkuntzan, ohituretan...

Migratzeak osasun mentalean eragina izan dezake. Izan ere, DENA uztea da: historia, hizkuntza, kultura, ohiturak, familia, adiskideak, jakiak, klase soziala, paisaia... bizitzaren zati esanguratsua, azken finean. Psikologikoki, aldaketa estresagarria eta disruptiboa. "Galera" guzti horien dolua lantzea ezinbestekoa da gizarte

berrian integrazioa, inklusioa, eman dadin.

Bakardadea, desilusioa, porrota, nostalgia, harridura, eta onartua ez izatearen sentimenduak migrazioen parte ere badira. Egokitzapen prozesuan antsietatea, estresa, eta anibalentzia presente daude. Horien lanketa mailak eragin handia du inklusioan, zeinetan harrera gizarteak ere erantzukizun handia duen: ongi etorrian, baliabideen informazioan, ohitura hizkuntzen erakusketan, etxebizitza eta lana bilatzen laguntzean, estereotipoetatik urruntzean, eta ez zabaltzean.

Espektatibak jokoan daude: zer bilatzea espero den, eta zer aurkitzen den. Iritsiera momentuan sentimendu aurkituak daude: poza lurralde

berrira iristeagatik, eta helburua lortzeagatik; tristura atzean utzitako guztiagatik. Inklusioak, lortzea zaila den oreka bat suposatzen du: berezkoa den bizimodua eta ezagutu berria denaren arteko oreka.

Jatorrira itzultzeko desira migratzaile gehienetan dago. Horrek nolabait laguntzen die aurkitzen diren bidegurutzean aurrera egiten. Integrazioan adinak, kulturak eta generoak badute zerikusirik. Nerabeen kasua bereziki delikatu izaten da: identitatea sortzearen prozesua hautsi egiten da bat-batean, eta eskenatoki berri batean jarraitzeak desoreka handia suposatzen die. (Jarraituko du).



## OBJEKTIBOTIK

### Olatzagutiko balkoi tranpantojoa

Olatzagutiko San Migel plazako bizilagunek balkoiak izan, badituzte, baina ez da inoiz pertsonarik ikusiko haurrek nola jolasten duten begiratzan, edo kintoen dantzaz gozatzan. Balkoien barandak errealak dira, baina ateak eta hauen kristalak gertutik begiratzu gero, margotuak direla ikusi ahal izango duzu. Arrazoia? Zeinek daki!



# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus  
618 640 056

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Maider Gabirondo

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

#### Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso  
maketatzaia@guaixe.eus

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



Olatziarrak musukoarekin San Migel plazan.

# Txertaketa kanpainarekin segitzen du gobernuak

Osasunbideak erizainak ekarriko ditu lastailean, oraindik txertatu ez diren pertsonen txertoa emateko. Murrizketak indarrak gabe gelditu dira gaur, baina barrualdeetan musukoa erabili behar da

## SAKANA

Hainbat arrazoiengatik haien txanda iritsi zenean COVID-19 gaitzaren kontrako txertoa jarri ez duten pertsonak daude. Txertatzeko bigarren aukera emanen du Osasunbideak. Txertoa jartzeko zain dauden pertsonen erizaintzako profesionalaren telefono dei bat jasoko dute, txertoa emateko eta txertoa hartzeko

lekuaren berri emateko. Txanda emateko 09:00etatik 15:00etara hots egingen dute.

Txertaketa txanda horren barruan ostiraletan Irurtzun eta Altsasu txandakatuko dituzte. Leitza, Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasu osasun eskualdeetako pertsonak deituko dituzte txertatzera. Gaur Irurtzunen izanen dira. Gainera, Aita Ba-

randiaran adinduen egoitzan bizi diren pertsonen dosi gehigarria jaso zuten joan den asteazkenean. Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoan dauden oraindik ez. Dosi gehigarria jasoko dute arrisku oso handiko baldintzak dituzten pertsonen ere.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institu-

tuko arduradunek esan dutenez, "COVID-19 kasuen intzidentziaren egungo jaitsiera herritarren txertaketari esker lortzen ari da, haren eragina iraunkorra baita, eta gaitzaren aldaerak gure ingurunean zabaltzeko gaitasuna agortzen ari baita". Era berean, adierazi dute: "baliteke COVID-19k urtaroko uhin moduan zirkulatzen jarraitzea, beste arnas birus batzuek egiten duten bezala, baina, ziurrenik, osasunean eragin txikiagoa izanen dute, txertoen estaldura handiari eta herritarrek beste prebentzio neurri batzuk aplikatzeari esker".

Prebentzio neurriak honakoak dira: beharrezkoa da 1,5 metroko distantzia fisikoa mantentzea beste pertsona batzuekiko; maskara behar bezala erabiltzea sudurra, ahoa eta kokotsa estaliz; aire zabaleko jarduerak eta barnealdeetako aireztapen etengabea lehenestea; kontaktuak murriztea, ahal den neurrian; eskuak maiz garbitzea; eta beste pertsona batzuekin kontakturik ez izatea COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak izanez gero, PCR proba proba baten emaitzaren zain badaude, edo berrogeialdian badaude.

Institututik azaldu dutenez, "Nafarroan, COVID-19ko txertoen batez besteko eraginkortasuna %62koa da dosi batekin eta %73koa kasu sintomatikoak prebentzeko jarraibide osoarekin, eta %80koa dosi batekin eta %92koa txertaketa osoarekin COVID-19ko ospitaleratzeak prebentzeko. Zainketa intentsiboetako unitateetan ospitaleratzeak eta heriotzak sahisteko txertaketa osoaren eraginkortasuna %90etik gorakoa da". Txertoaren ondorio zuzenengatik 12.700 infekzio sintomatiko baino gehiago, 2900 ospitaleratze, 310 ZIU

eta 1300 heriotza saihestu direla aurreikusi dute. Inpaktu horri gehitu behar zaio koronabirusen zirkulazioa murrizteko zeharkako efektua, biztanleriaren immunitatea dela eta. Bestalde, irailean, herenegun arte, Sakanan 22 positibo izan dira. Haietako 15 Altsasun eta bana Irañeta, Arruazu, Arbizu, Etxarri, Iturmendi, Urdiain eta Olatzagutian.

## Murrizketarik gabe

Gaitzaren bilakaera kontuan izanda, Osasun Departamentuak etorkizunean gaitzaren kontrola hiru arlotan egingen du: detekzio goiztiarra, positiboaren bilaketa eta agerraldien kontrola. Bestetik, Nafarroako Gobernuak indarrak gabe utzi ditu gaur indarrean zeuden murrizketak.

**Osasun arloa:** pandemia aurreko aurrez aurreko arreta gutzit berreskuratuko da osasun maila guztietan. Modu mailakatu izanen da.

**Musukoa:** derrigorrezkoa izanen da barnealdeetan eta 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia errespetatu ezin bada. Prebentzio eta higieine neurriak kontutan izaten segitzeko gomendatu du.

**Hezkuntza:** agerraldirik detektatzen ez bada, Lehen Hezkuntzan ikasgela osoa konfintatzeari utziko zaio. Positibo batekin kontaktua izan duten ikasle guztiei PCR proba egonkorak egin en zaizkie. Agerraldi kasuan Haur Hezkuntzan gela konfintatuko litzateke, musukoa derri gorrez erabiltzen ez dutelako.

**Ostalaritza:** barran kontsumitzeko aukera izanen da, betiere distantziak eta musukoak jartzea errespetatzen badira. Ez da ez edukiera ez ordutegi mugarik egonen, eta dantzatokiak irekiko dituzte.



Nafarroako

Bertsolari Txapelketa 2021

## IZABA

Urriak 2, larunbata. 17:30ean, Zinemaren Julen Zelaieta Iriarte, Eneko Fernandez Maritxalar, Endika Legarra Nuin, Patxi Castillo Graciarena, Aitor Irastortza Arrizurieta eta Idoia Granizo Uribarrena  
Gai-jartzailea: Alaitz Rekondo Ferrero

## TAFALLA

Urriak 9, larunbata. 17:30ean, Kultur Etxean Eneko Lazkoz Martinez, Saioa Alkaiza Guallar, Alazne Untxalo Erregerena, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Erika Lagoma Pombar eta Urko Gartzia Aleman  
Gai-jartzailea: Ander Aranburu Arriola

Sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian salgai  
[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)

## ZANGOZA

Urriak 10, igandea. 17:30ean, Karmengo Auditorioan Joanes Illarregi Marzol, Xabat Illarregi Marzol, Sarai Robles Vitas, Xabier Silveira Etxeberria, Mikel Lasarte Cia eta Oier Lakuntza Irigoien  
Gai-jartzailea: Zigor Gartzia Arregi "Zian"

## DONEZTEBE

Urriak 16, larunbata. 17:30ean, Zinemaren Julio Soto Ezkurdia, Josu Sanjurjo Altzuri, Iker Gorosterrazu Elizagoien, Ekain Alegre Gil, Egoitz Gorosterrazu Elizagoien eta Sahats Aleman Sadaba  
Gai-jartzailea: Maialen Belarra Eñeterreaga

Artoletzailea

Laguntzailea





Igande goizean plaza artisau eta ekoizlez beteko da. ARTXIBOA

## Lasterkaiak, azoka eta gehiago asteburuan Etxarrin

Udalak eta gazte asanbladak egitarauak prestatu dituzte eta izanen da zerekin gozatu

### ETXARRI ARANATZ

Pandemiagatik feriak bertan behera utzi ditu Etxarri Aranazko Udalak. Hala ere, astebururako egitaraua prestatu du. Has-teko, larunbatean, 17:00etan, Etxarriko etxeetatik jasotako garai bateko tresna zaharrak, argazki, margolanak eta beste, ikusgai izanen dira. Igande goizean plazak 11 artisau eta 13 ekoizle hartuko du, 10:00etatik 14:00etara. Haiekin batera, Nafarroa Oinezeko salmahaia izanen da. Lasterkaiak 11:00etan abiatuko dira mendira, joan-etorria egiteko. Bitartean, 17. Sakanako

Artzainen Gazta Txapelketa jokatuko da plazan bertan.

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak ere egitaraua prestatu du astebururako. Gaur, 19:00etan, saiheski jana egingen dute gaztetxean. Eta 22:00etatik 01:00etara gazte egoitzak jokoak hartuko ditu. Larunbatean, 19:00etan, pintxada egonen da gaztetxean. Eta 22:00etatik 01:00etara txupitokak zerbitzatuko dituzte. Azkenik, igandean, 10:30ean, maiatza sarreran lasterkaiak animatzeko hitzordua jarri dute. 18:30ean, berriz, Pontx pailazoaren emaldia izanen da gaztetxean.

## San Migel Aralarren

Herenegun, San Migel egunez, sei elizkizunetan santutegia beteta egon zen. Meza nagusia Jose Ignazio Munilla Donostiako gotzainak eman zuen. Ohi denez, Aralarko aingeruaren irudia meza guztietan presente egon zen. Akaberan, pandemiagatik, irudia gurtu beharrean, haren aurrean men egitera mugatu behar izan zuten fededunek.



NEREA MAZKIARAN ZELAIA

## Gaztetxearen urteurrena ospatuko dute

Gaur hasi eta asteartea bitarteko egitaraua prest du Altsasuko Gazte Asanbladak

### ALTSASU

Asteartean 31 urte beteko dira Txiki Polita kalean zegoen Socorro Etxea zena okupatu eta gaztetxea bihurtu zutela. Urteurrena ospatzeko AGAk egitaraua prestatu du, *31 urtez 11 gazte*

*antolatuz* leloa duena. Egitaraua gaur, 17:00etan, hasiko da plazan jarriko den haurren txokoarekin. Ordu bat geroago txokolate jana izanen da. 21:00etan, berriz, aforia, gaztetxean. Eta haren segidan, 22:00etan, Serge, bakarlarria iza-

nen da. Larunbatean, 11:30ean, kalderete prestaketa hasiko da. Onenak zein diren 14:30ean ebatziko du epaimahaiak. Bazkaldu ondoren pentsio duinen aldeko manifestazioan parte hartzeko deia egin dute. Bukatzeko, 19:30ean Eztitan taldearekin erromeria izanen da. Astelehenean, 19:00etan, film emanaldia izanen da eta, asteartean, 19:00etan, auzatea, 19:30ean etxajua eta, bukatzeko, 20:00etan, Sarabe eta Amaiurren kontzertu akustikoa izanen da gaztetxean.



## Ongi etorria Olatzagutian

COVID-19 gaitzak eragindako pandemiak olaztiarrak bi urtez utzi ditu Santa Ana eta San Migel festarik gabe. Aurrenekoan egin ohi die Olatzagutiko Udalak harrera aurreko urtean jaiotako umeei. Egoerak onera egin zuela eta, udalak harrera larunbatean egin zien. Joan den urtean eta aurreko jaiotako haurrak gonbidatu zituen. Dozena bat haur izan ziren deituak ekitaldira eta festetako ttattarra eta Sakanako Mankomunitateak emandako sorta bat jaso zuten opari.

Amaiur Rodriguez Lacalle, Lide Mazkian Jimenez, Aiur Iñiguez de Nanclares Vizuete, Iker Ganuza Baroja, Eleimi Noeieia Martinez Vazquez, Alain Gastaminza Barrenetxea, Xuban Garmendia Ikobaltzeta, Aritz Jauregi Albarracin, Iñar Lopez Gorospe, Amets eta Ganboiti Borrega. Larunbateko ekitaldian ezin izan zuten egon Ainhoa Irina Almanzor Rodriguezek eta Selva Benegas Barrenetxeak.



Irurtzundarrak plazan.

## Nafarroako Osasun Eskolak lau tailer eskainiko ditu

Doakoak dira. Izena emateko: 848 42 34 50 telefonoa (08:00-15:00) edo 'www.escueladalud.navarra.es'

### SAKANA

Nafarroako Osasun Publiko eta Lan Osasuneko Institutuan atxikita dago Nafarroako Osasun Eskola. Bere egitekoa da herri-tarren osasuna hobetzea eta nafarrek beren burua zaintzea bizitzeko etapetan eta hainbat osasun arazoren aurrean. Horretarako, tailerrak eskaintzen ditu. Udazkenerako iragarri dituen aurrez aurreko hamalau tailerretatik lau Sakanan izanen dira. Dagokion gaian adituek gidatuko dituzte tailerrak eta parte hartzaileak izanen dira. Tailerretan edukiera, distantzia

eta gomendatutako neurriak bermatzen dira.

Nafarroako Osasun Eskolak bere baitan hiru eskola ditu: Pazienteen Eskola, beste pertsona batzuk zaintzen dituzten pertsonen eta gaixotasun kronikoak dituztenei zuzendutako; Adinekoen Eskola, 60 urtetik gorakoei zuzenduta eta Guraso Eskola, 3 eta 12 urte bitarteko haurren gurasoei zuzendutako bi tailer izango dituena.

Irurtzunen Adinekoen Eskola bi ikastaro izanen dira. Eta Gurasoen Eskolako ikastaroak Altsasun eta Olatzagutian.

### Adinekoen eskola

60 urtetik gorako pertsonen zuzendutako eskolak bi tailer eskainiko ditu Irurtzunen, San Martin jubilatuen elkartearen. Lehenengoak, zahartze osasuntsua sustatzen du eta lau saio dira: lastailaren 18an, 20an, 25ean eta 27an izanen da, astelehen eta asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara. Gainera, sexualitateari buruz hausnartu nahi dutenei zuzendutako afektibitate eta sexualitate saioa azaroaren 15ean, astelehenean izanen da, 16:00etatik 19:00etara.

### Gurasoendako eskola

3 eta 12 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzendutako bi tailer izanen dira Burundan. Haien helburua da egunerokotasuna erraztuz, gurasoei hezkuntza eta babes eginkizunetan laguntzea, esperientziak partekatzea eta baliabideak ikastea. Altsasun lastailaren 20an, 27an eta azaroaren 3an eta 10ean, asteazkenak, 16:30etik 18:30era, lortia kultur gunean. Eta Olatzagutian, azaroaren 5ean, 12an, 19an eta 26an, ostiralak, 10:30etik 12:30era, ludotekan.

# Klima aldaketari egokitzeko ikerketa

Nafarroako Gobernuak Klimarako eta Energiarako Alkateen Itunari atxikitako 154 udalerriren azterketari ekin dio, parte hartzen duten udalerrietan klima aldaketa arintzeko eta klima aldaketara egokitzeko neurriak ezartzeko

### SAKANA

Nafarroak Life-NADAPTA proiektuaren baitan aldaketa klimatikora egokitzeko neurriak ezartzeko ikerketa hasi du 154 udalerritan, tartean Sakanako hamabostak. Ibarreko udalerriz guztiek bat egin dutelako Klima eta Energiarako Alkateen Itunarekin. Horregatik, foru administrazioak eginen dituen ezarri beharreko 18 ekintza planetako bat Sakanakoa izanen da.

Udalerriz bakoitzak arintze eta egokitze eremuei buruz egiten duen azterketaren bidez, zenbait neurri prestatu eta aztertuko dira, Europar Batasunak 2030era-ko ezarritako arintze helburuak



betetzen laguntzeko. Helburu horietako bat da CO<sub>2</sub> isuriak gutxienez %40 murriztea 2005. urtearekin alderatuta. Hori udal eremura eramanez gero eraikin,

ekipamendu eta instalazioei, argiteria publikoari eta udal ibilgailuei eraginen die, baita herrietako etxebizitzei, etxeko hondakinei eta garraioari.

Egokitzapen neurriei dagokienez, udal eremuan klima aldaketak izan ditzakeen ebidentziak ebaluatzea izanen da neurri horien helburua, baita arrisku eta kalteberatasun posibleen balantzea egitea ere, Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu arteko Taldeak ezarritako agertokien arabera, tokiko egokitzapen estrategia bat egin ahal izateko lehentasunezko ekintza neurriak eta horien balorazio ekonomikoa zehaztuz.

# EUSKAL HERRIKO ERDIGUNERA MARTXA

## URRIAK 10

**09:30** Irteera Irañetako bordan

**11:00** Gosaria  
Musika  
EKITALDIA

**13:00** Pintxo-potea Irañetako bordan

ANTOLATZAILEAK

LAGUNTZAILEAK

# Pentsiodunek aurretik mobilizazio zikloa dute

Larunbatean, 18:30ean, Altsasuko Foru plazatik. Hurrengo lau astelehen eguerditan Altsasun kontzentratutakoek beraien aldarrikapenak argindar enpresa, osasun departamentu eta banketxetara eramanen dituzte

## SAKANA

Asteartean Europako Parlamentuaren aurrean bezala, larunbatean Altsasuko kaleetan pentsio duinen aldeko aldarrikapenak entzunen dira. Adinekoen Nazioarteko Eguna dela eta, pentsio duinen aldeko mugimenduak manifestazioan parte hartzera deitu du. Pentsio duinak bermatzen dituen sistema publiko bat defendatzeko deia da larunbatekoa. Pentsiodunen mugimenduko kideen iritziz, hori lortzeko "Europako eta Estatuko estrategiak errotik aldatu behar dira".

Haien iritziz, "Europar Batasunaren oinarritzko eskubide gisa blindatu beharko lirakeke pentsio publikoak, bidezkoak eta nahikoak bermatzea, bizi baldintza duinak eta autonomoak lortzeko". Europako Gutun Sozialaren balioa indartzea ere nahi dute, "gutxieneko pentsioa eta soldata herrialde bakoitzaren batz besteko soldataren %60 izatea bermatzeko, eta pentsioen balio handitzea automatikoa bermatzeko, gutxienez benetako Kontsumo Prezioen Indizea".

Pentsiodunek Bruselan bezala, Altsasun ere aldarrikatuko dute "osasun eta dependenziaren arretarako kalitatezko zerbitzu unibertsalak izateko nahikoa finantziario" bideratzea. Horretarako, Europako Funtzak helburu horiei begira jartzea nahi dute, baita egun sustatzen ari diren pentsioei buruzko araua indargabetzea ere. Azkenik, "zerga paradisuekin bukatzeko neurri eraginkorrak eskatu dituzte".

## Aldarrikapen astelehenak

Sakanako pentsiodunen mugimenduak astelehen eguerdiko kontzentrazioa egiten du Altsasun. Lastaileko astelehenak hainbat errealitate salatzen dituzte. Heldu den astelehenean argindarraren garestitzeagatik protesta egingen dute, "prezio horiek premiak asetzeko



Pentsio duinen aldeko manifestazioko kartela eta asteleheneko bilkura.

## "EUROPAKO ETA ESTATUKO ESTRATEGIAK ERROTIK ALDATU BEHAR DIRA"

oinarritzko kontsumoa txikitzen dutelako". Oligopolio elektrikoari eskua sartzeko eskatuko dute. Horren berri emanez argindar enpresa baten bulegoan gutuna aurkeztuko dute. Bigarren astelehenean osasun etxea izanen da helmuga. Aurrez aurreko arreta eskatuko diote Nafarroako Gobernuari.

Hurrengo bi astelehenetan haien mezua bankuen eta kutxen bulegoetan utziko dituzte. Azaldu dutenez, "egunetik egunera etekin gehiago biltzen baitituzte eskaintzen diren zerbitzuak hondatzen dituzten bitartean. Kreditu eta hipotekekin gehiegikeriaz jokatzeko, komisioren kobrantza handitzea, aurrez aurreko arreta zerbitzuak murriztea, hori guztia milaka lanpostu suntsitzearekin batera, egunero sufritu behar izaten dugun ogia da".

## Mobilizazio egutegia

### Lastailak 4, astelehena • 12:00etan

Argindarraren igoera salatzen ibilaldia. Zumalakarregi plazatik Iberdrolaren bulegora.

### Lastailak 11, astelehena • 12:00etan

Aurrez aurreko osasun arreta eskatzeko ibilaldia. Udaletxe paretik osasun etxera.

### Lastailak 18, astelehena

• 12:00etan Bankuetan aurrez aurreko arreta zerbitzua eskatzeko ibilaldia. Zumalakarregi plazatik San Joan kalera.

### Lastailak 25, astelehena

• 12:00etan Bankuetan aurrez aurreko arreta zerbitzua eskatzeko ibilaldia. Udaletxe paretik Erkuden kalera.



Nafarroako Itzulia Etxarritik Lizarragarako bidea hartzen.

## Presoen etxeratzea eskatzeko Nafarroari buelta

Iruñeko Cuatro Vientostik Berriozarrera arteko manifestazioa bihar, 17:00etan, abiatuko da

## SAKANA

Ibilian-ibilian, etxerako bidean. Mezu hori zabaldu nahi du Sarek antolatutako Nafarroako Itzuliarekin. Herenegun Lesakan hasi zen eta bihar Berriozarren bukatuko da. 352 km-ko ibilbide horretatik sakandarrek 45 egin zituzten atzo ibarrean eta Andian. Antolakuntzatik esan zuten, "sakandarrek erantzun ona eman zuten. Oso ongi joan zen dena, garaiz egin ziren lekuko aldaketak". Ibilbidea Fran Balda hil zen tokitik pasa zen eta han omenaldia egin zioten. Izan ere, Balda Sareko kidea izateaz aparte, bera izan zen itzulia egitearen ideia izan eta bultzatu zuena.

Nafarroako Itzulia "presoen etxeratzearen prozesuari bultzada" eman nahi dio, "ulertzen baitugu prozesu hori ezinbesteko ekarpena dela bizikidetzako demokratikoaren esparru bat sendotzeko eta, horri esker, indarkeriak eta

sufrimenduak markatutako ziklo historiko luze bat ixteko". "Nahi bezain azkar ez bada ere", espertxe politikan pausoak ematen ari direla onartuta ere, haien iritziz, "une historikoa da, presoen etxeratzearen atzetik utzi eta etxera bueltatzeko prozesuari ekiteko. Iraganeko zauriak ixteko eta etorkizuneko bideak jorratzeko garai historikoa iritsi da".

Horretarako, "oraingoz nagusi den salbuespen politika" traba dela eta, "behin betiko konponbideari begira legea modu proaktiboan aplikatzea" eskatu dute Sarekideek, "aukerak badaudelako presoen etxeratzearen". Horretarako, "gobernuari pauso ausartenak emateko eskatzen ari gatazka, borondate politikoa izan dezatela espertxe politikoa salbuespen legetatik kanpo uzteko". Presoekin batera, iheslari eta deportatuak etxeratze bidea aldarrikatu zuten.

## Geroa Sozialberdeak ibarreko eskualde batzordea sortu du

Geroa Sozialberdeak alderdiak Konstituzio Kongresua abenduan egin zuen eta Uxue Barkos Berriez du idazkari nagusi. Alderdiak azaldu dutenez, "lurralde ezarpenaren aldeko apustu zalantzarik gabekoa landu du, eta horren emaitza da bere hamabi eskualde batzordeen konstituzioa". Haien artean Sakanako eskualde batzordea dago.

Alderdiak Nafarroako Biltzarra egingen du larunbatean, 10:00etan, Iruñeko hotel batean. Batzar arteko Geroa Sozialberdeak-eko Batzorde Betearazlearen deliberrazio, laguntza eta aholku politikoetarako gobernu organo horren lehen bilera izanen da. Alderdiak azaldu dutenez, "Nafarroako Biltzarra sorkuntza, hezkuntza, hazkuntza eta garapen prozesu biziaren murgilduta egon den urte baten ondoren egingen da". Guztira 40 pertsona elkartuko dira.



# Inbertsioak eta parte hartzea Olatzagutian

Udalak areto futbol pistako zelai berritu du eta kiroldegian LED argiak jarri ditu. Gazteen etxebizitza premien inguruko parte hartze prozesua egin nahi du udazkenean. Eta Vicente Argomaniz plazaren egokitzapenarekin aurrera egingen du

## OLATZAGUTIA

Olatzagutiko Udalak aurten 1.928.158,02 euroko diru sarrerak eta 1.924.778,02 euroko diru gastuak aurreikusi ditu. Joseba Vizueta Askargorta alkateak azaldu duenez, pandemia urtean zerbitzuak mantentzea izan da helburua. Horrela, Erburua kiroldegia eta Sutegi kirol taldearen bidez ikastaroak bueltatzea seinale ontzat hartu du alkateak, iaz ez baitzen izan. Bestetik, Vizuetek nabarmendu du aurten udalak 17 kontratatuzio egin dituela: 11 udan euskaraz kanpainarako, igerilekurako 4 eta 2 peoi.

Aurtengo inbertsioei dagokionez, udalak aurten areto futbol pistako zorua berritu du, egoera txarrean zegoelako. Horretara udalak 30.000 euro inguru bideratu ditu. Aurreko urtean kirol zelaiaren ondoko harmaila berritu zuen udalak. Antzeko diru kopurua bideratu du udalak Erburua kiroldegiko argiztapena aldatu eta LED argiak jartzeko. Argindar faktura murrizteko neurriak hartzen jarraituko du udalak, Vizuetek jakinarazi duenez, mediku kontsultategian eta gimnasioan ere LEDak jarriko baitituzte.

Bestetik, herriko dermioko hainbat bide konpondu zituen udalak udan. "Orain Olatzagutia eta Ziordia arteko bide bat guztiz asfaltatuta dago", gaztigatu du alkateak. 70.000 euro inguru bideratu dituzte bide horien konponketetara.

Inbertsioen atalean eskola publikoan egindakoa ere aipatu du Vizuetek: "berogailu zentrala du, baina ikasgela batzuk bero zeuden bitartean besteak hotz. Hori eragozteko gela guztietako berogailuetan termostatoak jarri ditugu, temperatura nahieran erregulatu dezaten". 14.000 euro inbertitu ditu horretan Olatzagutiko Udalak. Inbertsioetarako laguntzak jaso ditu udalak.



Mutikoak baloia jolasten berritutako zelai berrian.

## Etxebizitza eta plaza

Olatziarrek duten etxebizitza premia aztertzeke udalak Nafarroako Gobernuaren 20.000 euroko dirulaguntza jaso du. Vizuetek argitu duenez, "Gobernuarekin akordioa sinatzea falta da. Asmoa da enpresa bat kontratatzea. Haren bidez 18 eta 39 urte arteko olaztiarrek zer nahi duten jakin dugu. Parte hartze prozesu baten bidez egingen da hori". Aurki hasi nahiko lukekela gaineratu du alkateak.

2019ko parte hartze aurrekontuen bidez olaztiarrek erabaki zuten Vicente Argomaniz plaza egokitzea. Hau da, hesia eta arkitektura oztopoak kentzea. Parte hartze aurrekontuen diru poltsa 30.000 eurokoa zen. "Baina egin beharreko lanak aurrekontu handiagoa dute. Horregatik, aurten 6.000 euro bideratu ditugu arkitektoak proiektua egiteko. Hainbat aukera aurkeztuko ditu eta olaztiarrek erabakiko dute zein den haien gogokoena", azaldu du Vizuetek. Udalaren asmoa litzateke plazan lanak heldu den urtean egitea.

Azkenik, alkateak bi kontu aipatu ditu. Batetik, herritarrendako epaitzena. "Baso lane-



Asfaltatutako bidean paseatzen.

tan aritzen den enpresa batek epaitza guztiak bide baztertera atera ditu eta epaitza eskatu zutenek oso eroso izan dute egurraren mozteko eta garraiatzeko". Arriskua ere txikitu zela gaineratu du. Bestetik, udalak hilerriko erabilera ordenantzan aldaketa egin du eta, ondorioz, kanpoan bizi diren olaztiarrek aukera izanen dute hilerrian lurperatuak izateko.



Bakaikuarrek Maldai kalean batzartuta. UTZITAKOIA

## Herri kooperatiba batek kudeatuko du denda

Larunbatean hala erabaki ondoren, kooperatiba nola izan beharko duen zehaztea izanen da hurrengo pausoa

### BAKAIKU

Herriko denda bakarrak urte akaberan ateak itxiko dituela eta zerbitzua ez galtzeko pausok ematen hasiak dira Bakaikun. Lehenik, udalak Maldai kaleko 3. zenbakian bajera bat erosi zuen, han denda jartzeko. Erosketa egiteko udalak 50.000 euro bideratu ditu. Bakaikuko Udalak denda prestatu ondoren hura pertsona batek edo kooperatiba batek kudeatu behar zuen argitzeko larunbatean batzarra egin zen aipatu kalean bertan. Han elkartu zirenek bigarren aukeraren alde egin zuten.

Larunbatean Bakaikun izan ziren Itsasondotik etorritakoak. Haiek ere bakaikuarren egoera berean izan ziren martxoan: herrian zegoen denda bakarra itxi behar zen, eta kooperatiba sortu zuten. Beraien esperientziaren berri eman zieten bakaikuarrei. Bileran ere Talaios kooperatibako kideak izan ziren. Haiek ekonomia sozial eta eraldatzailearen esparruan ekintzailetasun eta enpresa eredu berriak sortzen, saretzen eta hedatzen laguntzen dute.

### Zehaztu beharra

Talaios kooperatibako Andoni Mikelarenak azaldu duenez, "orain Bakaikuren errealitatea abiapuntu izanda, herrieren errealitateari, premiei, egokitutako proiektua definitu behar da". Horretarako, talde motorra sortu dute bakaikuarrek. Haiek erabakiko dute kooperatibari zein forma eman eta aurrea egi-

teko zein pauso eman behar diren. "Guk taldearen esku dauden tresnak utziko ditugu eta haiek izanen dira Bakaikuko errealitateara egokitutako tresna, kooperatiba, eraikiko dutenak", azaldu du Mikelarenak.

Itsasondon eta Bakaikun bezala, "eraikitzen ari den tresna bat da herri kooperatiba. Bakoi-tzak bere eredu sortuko du. Bere baitan herriko erakundeak, eragileak eta herritarrak hartzen ditu eta herriaren beharrei erantzuten dien tresna da", esan du Talaios kooperatibako kideak. "Orain denda premia izan daiteke, baina herri kooperatibak Bakaikuren beste premia batzuk estaltzeko aukera eman dezake ere", gaztigatu du. Mikelarenak. Azkenik, Talaiosekoak nabarmendu duenez, "beste herriendako ere aukera izan daiteke herri kooperatiba, dauden hutsuneak bete ditzakeenak".



## KOLABORAZIOA

**(G)Ipuzkoa (I)****JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON**

Elena Barrena Osoro historialariak (*La formación histórica de Guipúzcoa*, 1989) era sakonean aztertu du Gipuzkoa koronimoaren jatorria eta bere bilakaera mendeetan zehar.

Historialari honek esaten digu 1025eko dokumentu batean Gipuzkoa ez, baina bai Ipuscua koronimoa edo toponimo nagusia agertzen dela, Garcia Acenarizek, 'senior de Ipuscua', eta bere emaztea zen 'Doña Galgak', San Juan de la Peña monasterioari egindako testamenduaren konfirmazioan, azken hauxe aipatu Ipuscua-ko jaunak eta Nafarroako Antso III.a Nagusiak izenpeturik.

Euskal Herriaren erdigunean dagoen lurraldearen izenak, orduan, dokumentazioari erreparatu gero bederen, ez zuen hasieran kontsonanterik. Eta ez da urte horretako kasu isolatua, inondik ere.

XI. mendeko aipamenak bakarrik jasota, *Doña Galga de Ipuçcha* (1048) eta *monasterio de San Salvador de Ippuzka* (1049). "Iratzeko Bilduma Diplomatikoan" (Lacarra, 1965)

ere "...rege Sancio regnante in Pampilona, Alava, Ypuzcoa et..." (1060) eta "...dominans Alava eta Bizcaya et ipuzcoa..." (1088) ageri zaizkigu. "Leireko Erdi Aroko Dokumentazioan" (Martin Duque, 1983) "...senior Orbita Acenariz in Ipuzcoa" (1066), "...senior Fortun Acenariz de Ipuzcoa" (1066). San Millango kartularioan (Serrano, 1930) "...Enneco Lopuiz, dominante Bizcaglia eta Ipuzcua eta Alaba..." (1082) eta "...comite Lope Ennecones in Bizkaia et Alaba et Ipuzcua..." (1083). "Sancio Ramirez-en dokumentuetan" (Ibarra y Rodriguez, 1913) "...et mito illa pachina de Ipuçcha ad..." (1084).

Eta XII. mendetik aurrera: *Sanctum Sebastianum de Pusico* (1105), *Sancho de Ypuçcoa* (1125), *Ipuçquoa* (1134-1150), *Ypuçquoa* (1134-1150), *Ipuzcua* (1135), *Ipuzcoa* (1135), *Puzcua* (1135), *Ipuzca* (1136), *Puzchoa* (1139), *Ipuzcua* (1140-1143), *Garcia de Ypuçca* (1141), *Ypuzca* (1143), *Ipuzca* (1143), *Ypuzcoa* (1143), *Puçca* (1146) eta *Ipuza* (1150) ere bai, batzuk aipatzeagatik.

Soilik 1140ko dokumentu batean ageri da XII. mendean



koronimoa, hasieran kontsonante herskari ahostuna daramala, Aita Moretek ("Anales del Reino de Navarra", 1969) jaso: "...y tenía en Honor y Gobierno Don Vela a Guipúzcoa". Ez ote zuen Aita Moretek berak moldatuko koronimoaren izena bere garaiko grafiara egokituz?

Hala ere, hiru mende beranduago ia, *Martin Yputça* ageri da oraindik 1427ko Mendialdeko suen liburuan, Etxarri Aranatz herriko biztanleen zerrendan.

Felix Segura Urrak (2019, 782 or) hiru aldiz gutxienik jaso du hasierako kontsonante herskari ahostunik gabe aipatu koronimoa: Goizueta eta Lesakaren arteko Anizlarreako mendiak hipside zirela 1270ean («las mis bustalizas que son en ypuzcoa») eta 1343an («Montes d'Aniz Larrea dentro en ypuzcoa»); eta 1311n Goizuetan, Juan Lopez de Urroz Nafarroako Mendialdeko merioak, Beltran Ibañez de Gamboa jauntxoaren etxea hartu zueneko («intus ypuzcoam in Goyçueta»).

Barrena Osorok esaten du Gipuzkoa koronimo bezala eta bertako aztarnak dokumentazioan horren berandu agertzea, gertaera jarraia dela Erdi Aro guztian eta aurreko garaietan. Aztarna arkeologikoen, esate baterako, kultur atzerapen nabarmenagoa erakusten dute Elgeako Mendilerrotik iparraldean, hegoaldean baino, bi eremu horiek elkarrekin erromatarren garaiko Bardulia osatuagatik.

Ezberdintasun honen harira, aipatzen da indusketaleku arkeologiko gipuzkoarretan ez dela Burdin Aroko aztarnarik ageri eta bai, aldiz, Elgeako Mendiaren hegoaldeko lurretan. Hala ere, ezberdintasun kultural hori horrela izanik ere, bi eremuetan esan daiteke iraun zuela barduloen leinuak, Araba eta Gipuzkoa lur eta gizarte erakundeak sortu arte V. eta VIII. mendeen artean. Iparraldeko (Gipuzkoa) eta Hegoaldeko (Araba) Barduliak, bereizirik maila kulturalen behintzat, argi eta garbi. Barduliaren azken aipamena dokumentuetan, V. mendeko erdialdean eman zuen ordukoan Gallaeciako artzapezpiku eta historialaria zen Hidaciok, heruloak suntsiturik geratu zirela Barduliako itsasertzean jaso zuenean.

Honaino, (G)Ipuzkoa koronimo edo toponimo nagusiaren historia dokumentuaren zati bat.

Eta, hemendik aurrera, koronimo honen etimologia zein izan daitekeen argitzeko saiakera.

Barrena Osorok (1989, 56-64), bere ustez, nondik datorren hipside dugun koronimoa eman du ezagutzera:

"*Tanto 'Ipuscua' como 'Ipuçcha' son dos nombres vascos compuestos sobre la misma raíz 'Ipu' que, con toda probabilidad, es un nombre propio testimoniado también en otros topónimos, nombres y apellidos de persona bajo las formas de 'Ipu', 'Lipu' o 'Gipu'. En ambos casos el nombre personal va seguido del*

*morfema de plural '-tza' que, al ser un morfema de derivación, provoca la creación de otro sustantivo colectivo de diferente esencia*".

Aurreraxeago, gaztelaniako itzulpena eta guzti ematen digu: "*los de Ipu*", "*Ipuçcha*". Eta txistukarien bikoiztasuna ere, era naturalean adierazten digu: "..., pues las grafías 'ç' y 'ch' no parecen ser más que una innecesaria duplicidad de la partícula 'tza', que al pronunciarse (c) motiva esa lógica confusión".

"*Ipuscua*" formari buruz, aldiz, ondorengo dio aipatu historialariak:

"*Iputzan-go-a, sustrato de 'Ipuscua', que sólo adquiere coherencia poniéndola en boca de miembros ajenos al grupo 'los de Ipu', pues únicamente desde esa perspectiva es discernible el lugar que ocupan... 'como un objeto diferenciado*".

Nik, aldiz, uste dut ezberdindu beharko lirakeela bi toponimoak. "Iputza" toponimoa (*Ipuçcha*) eremuari bertakoek emandako izena izanzen litzateke; eta "Ipuzkoa" (*Ipuscua*), aldiz, gentilizioa, hau da, lurraldearen izenari -ko atziki eratorlea erantsita eta bertakoek zein kanpokoek erabilia edota sortua. Ondoren, dokumentuetan erredundantzia gertatuko zen eskribau, idazkari edo notarioen aldetik "de Ipuzkoa" idatzita, "de Iputza" beharrean. Baina, geroxeago osatu ahal izanzen dut hipotesi hauxe, jatorrizko "Iputza" horren etimologia eta osagaiak zeintzuk izan daitezkeen azaldukoan.

Aurretik esaten du Barrena Osorok, euskal lurraldeen artean kasu bakarra dela, zeinetan bere egitura morfologikoak erakusten duen bere eremuarekiko identifikazioa baino lehenagoko gizarte baten izatea. Nik esanen nuke, egungo euskal lurralde moduan ez dagoen arren, gauza bera gertatzen dela hasierako "Baskonia" koronimoarekin ere, toponimo horri ondorengo etimoak aitortzen bazaizkio:

*Baso + -ko + (e)nea.*

## DUELA 25 URTE...

**Sakanako musika taldeen mahai ingurua**

Hiru orduz musikaz eta musika taldeei buruz hitz egiten. Emaitza hori eman zuen Urdiaingo Euskara Batzordeak Sakanako musikariekin antolatutako mahai inguruak. Hizketan aritu ziren Burni, Nahi ta Nahiez, Ortzi, Kontraesaka eta Gozategi taldeetako kideak. Moderatzailea Trikimailu taldeko Juan Migel Arzelus izan zen. Musikan hasi berriak eta beteteranoak elkartu ziren eta ospea, musikariaren bizimodua, musikaz bizitzea eta halakoak izan zituzten hizketagai.

# Ethin zure ametsari

Etorkizunez  
beteriko herriak

Amaiak, Jesúsek, Leyrek, Iñakik, Raquelek eta Patxik lortu dute. Landa-inguruneak beren lanbide- eta bizitza-proiektua gauzatzeko aukerak eskaini dizkie. Baita modu jasangarrian, berritzailean eta bideragarrian gauzatzeko ere.

Sartu [despopulazioa.nafarroa.eus](https://despopulazioa.nafarroa.eus) webgunean, ezagutu beren istorioak eta ikusi ea zurearen hasiera ere izan daitekeen gure herrietan ekitea.



IKUS BIDEOA



## Liburutegietako katalogoa elebiduna izateko eskaera

Eskaera betez gero, katalogoaren onlineko bilaketak euskaraz egiteko aukera legoke

### LAKUNTZA

Nafarroako Gobernuak liburutegietako katalogo publikoa elebitan ezartzeko eskaera jaso zuten apirilaren 21ean. Eskaera 22 eragilek egin zuten, haien artean Lakuntzako Herri Eskola dago. Erantzunik jaso ez dutenez, beste pauso bat ematea erabaki dute. Lastailaren 15ean herriko liburutegira edota Nafarroako Liburutegi Nagusira bisita gidatua eskatuko dute. Baita hura euskaraz izateko eskatu ere. Bisitaren bidez liburutegiak nola funtzionatzen duen jakinen dute bisitariak. Bisitan onlineko katalogoan bilaketak nola egiten diren ere erakutsi behar dute. "Eta euskaldunoi esanen digute bilaketa erdaraz egiteko?", gaztigatu dute sustatzaileek.

Halako bisitak, ikasten ikasiz izenekoak, ohikoak dira ikastetxeetan. "Sarri ikastetxeetako



Olatzagutiko liburutegia.

gazteak eta haurrak joaten dira eta han ikasten dute nola funtzionatzen duen liburutegiak, materialak nola dauden antolatuturik, eta, horra hor gakoak, nola erabili behar den lineako katalogo publikoa", azaldu dute 22 eragileek.

## Altsasuk hartuko duen Gazte Topaketa Sozialisten atarian

Sarrerak bono moduan 'www.gks.eus' webgunean salgai daude, igandera arte

### ALTSASU

Euskal Herriko Gazte Topagune Sozialista hartuko du Altsasuk hilaren 8tik 12ra, Gazte Kontseilu Sozialistak (GKS) eta Ikasle Abertzaleak-ek (IA) antolatuta. Haien kideek "hezkuntza esparruetan antolakuntza komunistaren baitan lanean jarraitzeko hautua" dute, "instituzio burges eta alderdi politikoen influentziatik kanpo gure jardun politikoarekin jarraituz".

Eta Topagune Sozialista antolatatu dute "antolakuntza independente bat garatzeko gaitasunak handitzeko helburuarekin, egungo zenbait auzi politikoren inguruko hausnarketa bultzatuz eta aisialdirako egitarau oso bat prestatuz". Hausnarketarako gaiak izanen dira krisi kapitalista eta estrategia sozialista berriaren oinarriak; ekonomia borroka ikuspegi



Lakuntzako aurkezpena. @GKS\_SAKANA

sozialistatik aztertuz; askatasun politikoen aldeko borrokaren garrantzia eta zapalkuntzei aurre egiteko metodologia politikoaz. Euskal Herriko tesuinguru politikoa ere aztergai izanen da. Gainera, kontzertuak, olinpiadak...

## Genetikaz Euskeraren Jatorriaren biltzarrean

Larunbatean, 09:45etik aurrera, Amarauna gunean euskal genetika izanen dute aztergai

### ZIORDIA

Euskeraren Jatorria elkarteak bere 15. biltzarra Ziordiko Amaraunan egingen du larunbatean. Oraingoan genetikari ere eskainiko diote goiza, "arlotan horretan egin diren azken ikerketen berri izateko eta genetika azterketen mugak ere hobeto ezagutzeko", azaldu dute elkartetik. Arratsaldean, berriz, Euskaltzaindiak eta Lakarrak egindako Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa (EHHE) aztertuko da. Informazioa eta izena emateko [euskarenjatorria@gmail.com](mailto:euskarenjatorria@gmail.com) e-postara idatzi edo 663 901 248 telefonora hots egitu.

## Egitaraua

- **09:45** Agurra eta Biltzarraren aurkezpena.
- **10:00** Mariam Martinez de Pancorbo: *Historia biológica del cromosoma Y en el País Vasco*.
- **11:00** Miriam Baeta Bafalluy: *Identificación mediante ADN aplicada a la Memoria Histórica*.
- **12:00** Atsedendia.
- **12:30** Antonio Arnaiz Villena: *Vascos, genética y los titulares de los periódicos*.
- **13:00** Mahaingurua: euskal genetika.
- **14:00** Bazkaria.
- **16:00** Eñaut Etxamendi: *EHHEren azterketa kritikoa*.
- **17:00** Jabi Goitia: EHHE.
- **17:45** Atsedendia.
- **18:15** Jon Goitia: EHHE.
- **19:00** Jesus Glez. Artabe Marianne van der Sluys. *Los vascos no vienen del Este. Ni el euskera tampoco*.
- **19:30** Biltzarraren akabera.



Arkeologoek zista agerian utzi berritan. UTZITAKOIA

**Eneida C. M. / Alfredo A. I. ETXARRI A** Trikuharri forma dute, baina txikiagoak dira eta zista edo harkutxa izena dute. Arkaitz Errazkin Beltzak Etxarri Aranazko beheko basoan, San Adrian eta Bordaburu artean, bat opatu zuten. Metro bat inguruko altuera du.

### Zer da opatu zenuena?

Izen teknikoak zista da. Nik izena ez nuen ezagutzen. Nik opatu nuenean Mikel Markotegirengana joan nintzen, pentsatuz zerbait izan zitekeela. Argazki batzuk atera nizkion eta berak esan zidan ez zela trikuharria... Ulertu dudanez, trikuharrien eratorpen bat bezalakoa da. Trikuharriak handiak ziren, harlosa handiekin, normalean harriz tapatzen zituzten gero, tumulu batekin. Kolektiboak ziren: trikuharri batean hildako bat baino gehiago lurperatzen omen zituzten. Zistak txikiagoak dira, harkutxak. Indusketa egin zuten adituek esaten zutenera, batzuetan gorpu osoa ere ez zuten sartzen. Behar bada, lehena erraustu eta gero, normalean, buru hezurra eta gorputzeko hezur luzeren batzuk sartzen zituzten. Testigantza emanen zuten zatiren batzuk lurperatu. Beste batzuetan gorpuak. Baina banakoak izaten ziren. Behar bada, denborara, berrerabiliere. Eta historian gertuagokoak dira.

### Batek nola opatzen du zista bat?

Kasualitatea bada, gauzak diren bezala. Parean pasa nintzen, eta han zegoen. Gero norberaren afizioak ere badira. Ni basotik edo menditik joaten banaiz harri montonei begira ibiltzen naiz. Historia eta aurre historia beti gustatu izan zaizkit.

### Eta honetan zerbait ikusi zenuen?

Basoan, sekula ibili gabe nengoan toki batean, ikusi nuen halako muino bat. Han edo enborren bat falta da, edo arbola erori eta zuloa egin zuten, edo gerrieturen bat (lurra maldan behera mugitu), edo, bestela, bakarren batek harriak ateratzen zuloa egin zuten. Halako muino batean zulotxo bat zegoen. Izkin batean harlosa bat zegoen. Zuloan sartu nintzen eta: aiba, harlosa hau! Etxinda zegoen harlosaren azpian beste bi zutik ikusten ziren, mahai forma egingo balute bezala. Eskuarekin hasi nintzen lurra kentzen eta harriek segitzen zutela ikusi nuen. "Ematen du biak beheraino doazela". Gero adituengana joan nintzen eta hobe begiratu zuten.

### Norengana joan zinen?

Mikel Markotegirengana, baneien Sakanan eta Urbasa-Andian ibiltzen dela. Argazkiak atera nituen eta zerbait izan zitekeen galdetu nion. Berari interesgarria iruditu zitzaion: honek agian merezi du! Ezpileta taldekoa da eta askotan Euskal Herriko Unibertsitateko Joxan Mugika arkeologoarekin ibiltzen dira. Omen da aurre historian nahikoa eminentzia. Etorri eta esan zuten han indusketa egitea merezi zuela. Eta egin zen.

### Indusketa. Eta inguruan zerbait begiratzen da?

Hilobi bat da eta hura begiratu zuten. Esandakoa, harlosa horiek

**"ZISTAK BANAKAKO HILOBIK ZIREN. BEHAR BADA DENBORAREKIN BERRERABILI ZIREN"**



Arkaitz Errazkin Beltzak Etxarri Aranazko beheko basoan zista aurkitu zuen.

# "Egokiena opatutakoa dakienari jakinaraztea da"

## ARKAITZ ERRAZKIN BELTZA HISTORIAN ZALETUA

Beheko basoa, Elorza, 2019ko iraila. Begirada bat, susmo bat. Trikuharria? Dakienak ezetz, trikuharria ez, zista dela. Bata eta bestea hilobi megalitikoak

bistan gelditu ziren zulo bat dagoelako. Orduan, zuloa ere pixka bat begiratu zuen. Ez zuen gauza handirik opatu: bi zeramika puska, zentimetro pare batekoak. Eta ez dakit haietatik gauza handirik aterako duten.

### Indusketa bukatuta dago?

Bai. Ikerketa ez dakit zein puntaraino akabatuta dagoen. Argazki pila bat atera zituzten. Egin dute hiru dimentsioetan halako erreproduzio grafiko bat ordenagailu bidez.

### Zerbait arrunt bezala hartu zuten?

Zistak txikiak dira eta esaten dute opatzeko zailak omen direla. Gehiago egonen dira, seguru. Trikuharriak, normalean, harri pilo batek tapatzen du. Eta ikusten da harri piloa. Eta handiak dira, Etxarrikoak, Urbasakoak metro batzuetako diametroa izaten dute. Zulo hori ez balitz egon, gainean, metro bateko zabalera ailegatuko zen harlosa bat ikusiko zen. Eta harri bat ikusita ere, bakarren bati otu egin behar zaio, eta begira hasi behar du. Horrela oso jende gutxi ha-

siko da, gainera, harri gehiengotan ere ez da egonen. Opatzeko zailak dira. Ulertu nuenez, zistak, normalean airean zeuden eta hau pixka bat lurperatuta dago. Hemen egin omen zuten lurrean zulo bat, zutikako harriak jarri eta gero gainean tapatu. Zisten artean berezia omen da.

### Zer garaikoa da?

Duela 4.000 edo 3.500 urte ingurukoa da. Urbasako trikuharriak eta 5.500 eta 4.500 urte artean eraiki ziren eta duela 3.000 urtera arte hilobiratzeko erabili ziren.



Elorzan opatutako zista, bertatik bertara. UTZITAKOIA

### Zer pasa zitzaion zistari?

Barrabasen bat joan eta hautsi egin zuen. 2019ko irailean opatu nuen. Joan den urteko udaberrian egin behar zen indusketa, pandemia etorri zen, atzeratu eta irailean egin zuten. Indusketa egiterakoan lurra kentzen da, hor zer opatzen den aztertzeko. Eta zutikako bi harriak kili-kolo gelditu ziren. Nafarroan ondarearen kudeaketa Vianako Printzea erakundearena da. Indusketa bukatzeko galdetzen zaio nola utzi behar den, nola irmotu behar den. Hasieran erabaki zen tapatzea. Urte bat tapatuta egon da. Jendeak zistaren berri izan du eta noizean behin bakarren batzuk joaten ziren. Gainean bi harri handi dauzka. Agorrilaren hasieran esan ziguten norbaitek gaineko harri bat lurrera bota zuela, eta bestea atzera. Argi eta garbi, bakarren batek nahita eginda. Ez dakit ba ote zekien zer zen. Egia da ez genuela jakinarazi, irmotu gabe zegoelako. Nafarroako Gobernuoak nola egin behar zen esatera pasako dira. "Ea tapatuta kontserbatzen den". Hori izan zen irizpidea. Ez genuen asmatu. Horren aurrean jakinarazi dugu, pentsatuz jendeak jakinda, gehiengo batek baloratu duela.


### Horren aurrean zer egin duzue?

Ezpilleta taldeak kartela jarri du. Batez ere, atzera ere, ez pasatzeko. Kartelak azaltzen du zer den, noizkoa den, indusketa egin zela eta gero hautsi egin zutela. Handik hurrena pasatzen dena kontuz ibil dadila. Hori nahi da kartelarekin. Oraintxe, dagoen bezala, hauskor dago.

### Bakarren batek zerbait ikusiz gero, zer egin beharko luke?

Argazkiak hartu, lokalizazioa garbi izan, azaldu ahal izateko. Eta, ondoren, jakinarazi; egokiena, dakienari. Ni Markotegirengana joan nintzen, baina Ezpilleta taldeko beste edozeinengana joanez gero ere... Joanen da bakarren bat dakiena, begiratu du eta baloratu du. Eta ez badute inor ezagutzen udaletxera joan eta jakinarazi. Eta udalek badute gaitasuna harremanetan jartzeko Ezpilleta taldearekin edo beste bakarren batekin, eta norbaitek begiratu dezala, benetan, merezi duen edo ez. Eta horrela dokumentatzen dira. Hori eginda beti har daitezke neurriak, bai ikusarazteko, edo, behintzat, jakin eta zerbait egin behar bada basoan, kontuz ibiltzeko.

Eta badaude merezi duten gauzak, 3.000 edo 4.000 urte izan gabe ere. Nik Etxarriko basoan errotarriak ikusita dauzkat. Uharte Arakilen ere ba omen daude. Harrobiak, haize olak (metala lantzeko lekuak)... Gauzak daude. Basoa makina bat norabide-tan baliabide oso garrantzitsua zen, eta horrek aztarna pila bat utzi ditu.



Utubar industrialdea Arbizu  
948 460 499  
Nafarroako berezko txistorra

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN  
BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA  
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /  
kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 1

**ALTSASU Gazte agenda:**  
**Gymkana.**

17:00etatik aurrera, Intxostiapunta  
gazte gunean.

**ALTSASU Altsasuko**  
**Gaztetxearen urteurrena.**  
**Haurren txokoa eta txokolatada.**  
17:00etatik aurrera, plazan.

**ETXARRI ARANATZ Feriyek:**  
**Kostillada.**

EAGAK antolatuta.  
19:00etan, gaztetxean.

**ETXARRI ARANATZ Etxarriko**  
**Feriyek: Jokubek.**

EAGAK antolatuta.  
22:00etan, gaztetxean.

**BAKAIKU** **Scope room.**

Haurrendako edukiera beteta.  
Helduak izena eman udaleko  
telefonoan: 622268161.  
20:30ean, eskoletan.

**ALTSASU Altsasuko**  
**Gaztetxearen urteurrena. Afaría**  
**eta Serge bakarlaría.**  
21:00etatik aurrera, gaztetxean.

## LARUNBATA 2

**ZIORDIA Euskal Genetika.**  
**Euskeraren Jatorriaren**  
**15. Biltzarra.**  
09:45etik aurrera, Amaraunan.

**ALTSASU Altsasuko**  
**Gaztetxearen urteurrena.**  
**Kalderete prestaketa eta**  
**txapelketa.**  
11:30etik aurrera, plazan.

**ARRUAZU** **Estrategia planari**  
**buruzko batzar irekia.**  
17:00etan, elkarlearen atzeko  
lorategian.

**ETXARRI ARANATZ Atzokoa**  
**gaurkora ekarriz tresna zaharren**  
**erakusketa (tresnak, argazkiak,**  
**margolanak eta abar).**

17:00etan, plazan.

**ALTSASU Gazte agenda:**  
**Munduko jolasak.**  
17:00etatik aurrera, Intxostiapunta  
gazte gunean.

**ALTSASU Pentsio duinen aldeko**  
**manifestazioa.**  
18:30ean, plazatik.

**ETXARRI ARANATZ Etxarriko**  
**Feriyek: Pintxada. Ondoren,**  
**txupitoak.**  
19:00etan, gaztetxean.

**ALTSASU Altsasuko**  
**Gaztetxearen urteurrena.**  
**Erromeria: Eztitan.**  
19:30ean, gaztetxean.

**ALTSASU Alex O'Doghertyren**  
**Imbencil (Midiendo las**  
**palabras) ikuskizuna.**  
19:30ean, Iortia kultur  
gunean.

**OLAZTI Bira Nafarroan**  
**Barna: Moisés no duerme y**  
**los Noctámbulos taldearen**  
**kontzertua.**  
20:00etan, kultur  
etxean.



**ALTSASU Irati Urrestarazuren Te Flujo erakusketa.**  
**Urriaren 8ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara,**  
**larunbatetan ikuskizuna baino ordu bat lehenago eta igandetan**  
**16:00etatik 20:30era. Iortia kultur gunearen erakusketa gelan.**

## IGANDEA 3

**ALTSASU Eskiza – Ukoba –**  
**Lubierrri – Hagina ibilbidea**  
**eginen du Altsasuko**  
**Mendigoizaleak taldeak.**  
08:00etan, egoitzatik.

**ETXARRI ARANATZ Artisau**  
**azoka.**  
10:00etatik 14:30era, plazan.

**ETXARRI ARANATZ Sakanako**  
**Artzaian XVII. Gazta**  
**Txapelketan.**  
11:00etan, plazan.

**ETXARRI ARANATZ XLVL.**  
**Mendira joan etorria.**  
Udaberri elkarleak antolatuta.  
11:00etan, plazatik.

**ETXARRI ARANATZ Etxarriko**  
**Feriyek: Pontx pailazoa.**  
EAGAK antolatuta.  
18:30ean, gaztetxean.

**IRURTZUN Suakai taldearen On**  
**the Rocks ikuskizuna.**  
19:00etan, kultur etxean.

## ASTELEHENA 4

**ALTSASU Pentsio duinen aldeko**  
**elkarretaratzea. Argindarraren**  
**igoera salatzeko ibilaldia.**

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO NAGUSIAN

**Adiós, idiotas** gaurkotasunezko  
filmaren emanaldia  
Ostirala 1: 19:30  
Igandea 3: 19:00

**Nora** gaurkotasunezko filmaren  
emanaldia  
Osteguna 7: 19:00

12:00etan, Zumalakarregi plazatik  
Iberdrolaren bulegora.

**ALTSASU Altsasuko**  
**Gaztetxearen 31. urteurrena.**  
**Zine txiroa.**  
19:00etan, gaztetxean.

## ASTEARTEA 5

**ZIORDIA Sormen tailerra: Liburu**  
**bat egingo dugu.**  
8 eta 12 urte bitarteko haurrendako.  
Izena ematea:  
ziordialib@cederna.es.  
17:00etatik 18:30era, liburutegian.

**ALTSASU Altsasuko**  
**Gaztetxearen 31. urteurrena.**  
**Luntxa, txupinazoa eta Sarabe**  
**eta Amaiurren kontzertu**  
**akustikoa.**  
19:00etatik aurrera, gaztetxean.

**Arrosa sareko**  
**podcast-ak**

Ostiraletan 18:00etan eta 22:00etan  
Larunbata eta igandetan  
11:00etan eta 22:00etan

**beleixe** 107.3 FM

**D**  
**N** **DEKOVEN**  
**NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com · www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU · Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA



## Nati Galarza Gabirondo

Une latz hauetan bat egiten dugu  
familiarren saminarekin

Besarkada bero bat



ESKELA



## Nati Galarza Gabirondo

Adiorik gabe,  
dantza dezagun  
azken balsa

Seme alaben  
Iturmendiko kuadrilla

### ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €  
prezio hauek BEZa bame dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k  
baino lehen.



## IRAGARKI SAILKATUAK

### LANA/NEGOZIOAK

#### LAN ESKAINTZA

**Irurtzango musika eskolan zeharkako birula irakasle izateko deialdia:** B mailako lanpostua da, aldi baterako (amatasun baja betetzeko), oposizio bidez, derrigorrezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin. Deialdian parte hartu ahal izateko, eskabideak aurkezteko epea 2021eko urriaren 3an amaitzen da.

**Etxarriko Danbolinbulo haur ludotekarako lanpostsa:** Ikasturtean zehar sor daitezkeen ordezkapenak betetzeko. EGA edo balioakidea izatea eskatzen da eta Haur Hezkuntzako zikloa edo gradua izatea baloratuko da. Interesa baduzu bidali zure curriculum-a *danbolintxulo-haur ludoteka@gmail.com* helbidera.

**Sakanako Mankomunitateko kirol monitore, entrenatzaile eta aurkezle euskaldunen lanpostsa:** 18 urte beteak izatea, euskalduna izatea et oinarizko kirol titulazioa izatea derrigorrezkoak dira. Izena eman *kirolak@sakana-mank.com* postara idatziz edo 948 464 866 telefonora deituz.

**Liburuzain eta kultur kudeaketako laguntzaile lanpostua betetzeko oposizio lehiaketa Arbizun:** C mailako lanpostua eta euskara ezagutzea ezinbestekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea urriaren 7an amaitzen da. Oinarriak eta argibideak *www.arbizu.eus* web orrian, Arbizuko

Udaletxean. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta dago ere.

### IKASTAROA

**Etxarriko hiketan ikasteko aukera:** Tartebuak hartu eta animatuko gettuk? Bei!! Ti-ta batiñ ikasita! Larunbatetan 10:00etatik 12:00etara, 8 saio izango dira guztira. Izena emateko azken eguna urriaren 8a izango da, udaletxean.

### LEHIAKETA

**Bakarrizketa feministen I.lehiaketa:** Nafarroako Indarkeriaren Aurkako Plataformak antolatuta Azaroak 25 inguruan, umorearen bidez hain normalizatuak ditugun tratu txar egoera batzuk ikusarazteko, sentsibilizatzeko, ispilua jartzeko eta patriarkatuak jartzen digun benda kentzeko. Oinarriak: Euskara edo gaztelaniaz, edozein adinetako emakumeek\* parte har dezake, 10-15 minutuko iraupena izan behar du eta gidoia eta bideoa helbide honetara bidali behar da: *http://nomasviolenciasistamail.com*. Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean amaitzen da. Sariak: irabazleak 200 euro, bigarrenak 150 euro eta hirugarrenak 100 euro. Guztiak azaroan publikoaren aurrean aurkeztuko dira. Animatu eta parte hartu!

### OHARRAK

**Odol emateko Irurtzunen:** urriaren 14an,

16:45tik 20:30ra, *www.adona.es/eu*.

**Etxarri Aranazko Udalaren oharra: 2021eko 1.seihilabeteko ura ordaintzeko borondateko epea aurtengo azaroaren 4an bukatuko da.** Ordaintetako helbideratua dituztenei, azaroaren 4an kargatuko zaie beren kontuetan eta gainerakoek herriko banketxe batean ordaindu beharko dute. Helbideraketa berriak edo aldaketak eskatzeko azkeneko eguna urriaren 28a izango da.

**Irurtzango Gazte Txokoan izena emateko epea zabalik:** Urriaren 8an jarriko da marxan 12-15 urte bitarteko gazteei zuzendutako aisialdi baliabidea. Ostiraletan eta larunbatetan 17:00etatik 21:30era egongo da zabalik. Zerbitzua antolatu ahal izateko inskripzioa eta ordainketa garaiz egitea ezinbestekoak dira. Bazkide bakoitzak 5 euro ordaindu beharko du, ordainagiria eta inskripzioa edo *irurtzun@irurtzun.eus* posta elektronikoa aurkeztu behar dira. Informazio gehiago *www.irurtzun.eus* web orrian edo Udaletxean.

**Irurtzango konpartsa:** Erraldoiak dantatzeko jende premia dago Irurtzunen. Interesa duenak hots egin dezala 690 335 196 (Amalia) telefono zenbakira.

*iragarki@guaixe.eus*

*www.iragarkilaburak.eus*

## JAIOTZAK

- **Aila Shewring Senar**, irailaren 14an Etxarri Aranatz
- **Arane Crespo Iriarte**, irailaren 21ean Altsasun
- **Malen Larrion Salgado**, irailaren 24an Altsasun

## EZKONTZAK

- **Maria Aranzazu Albisu Tejeria eta Jose Maria Galindo Extremera**, irailaren 13an Lakuntzan
- **Antonio Vicente Fontellas Escudero eta Sonia Periz Lluetsma**, irailaren 23an, Irurtzunen


## HERIOTZAK

- **Mercedes Irigoien Zelaia**, irailaren 22an Urdiainen


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## EGURALDIA ASTEBURUAN


### Ostirala, 1




### Larunbata, 2



### Igandea, 3



### Astelehena, 4



# IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

# IRACHE

## tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

## “Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

# Hartzabalen, gustoko tokiyen, aldapaik ez

**MENDI LASTERKETAK** Igandean 11:00etan abiatuko da, Etxarri Aranazko plazatik, Udaberri elkarteak antolatutako 46. Mendira Joan Etorria. Larunbateko 20:00ak arte eman daiteke izena, eta lasterketan parte hartzera animatu dituzte sakandarrak

**Maidar Betelu Ganboa** ETXARRI A. Igandean, 11:00etan abiatuko dira 46. Mendira Joan Etorria lasterketan parte hartuko duten korrikalariak Etxarri Aranazko plazatik Bargara bidean, Hartzabalera igotzeko (1.065 m). Handik buelta hartu, eta plazaraino jaistea da egin beharrekoa, guztira 10 km eta 557 metroko desnibela gainditu eta gero. Lasterketa Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak antolatzen duen Mendi Lasterketen Zirkuiturako puntuagarria da.

Gaurtik aurrera bertan behera geratu dira pandemiagatik ezarritako murrizketak, eta horrek bete betean harrapatu du lasterketa antolatzeko lanetan buru belarri dabilen Udaberri elkarteak.

## Izena ematea luzatu dute

Hasiera batean lasterketarako izena ematea gaur, ostirala, ixten zen, baina antolakuntzak epea zabaltzea erabaki du eta bihar, larunbata, 20:00etaraino egin ahalko da. Horretarako, 16 urte-tik gorako interesatuek [www.kronoak.com](http://www.kronoak.com) webgunera jo behar dute (10 euro). Hala ere, antolakuntzak gehienez 150 korrikalarien aforoari eutsi dio.

Udaberri elkarteak Aiert Lizarraga Peruskik azaldu duenez,



Etxarriko Mendira Joan Etorriko azken irabazlea, Igone Campos, helmugan. ARTXIBOA

izena ematea azkeneko edizioen antzerakoa da une honetan, baina gora egin dezake. "Azken edizioan, 2019an, 93 korrikalarik eman zuten izena, eta astearte gauean 94 korrikalari zeuden izena emanda. Guztira 100-110 kirolari inguru espero ditugu. Asteburu honetan mendi lasterketa asko daude, eta zaila izango da gehiago betetzea. Dena den, guk, partaide bakarria egonda ere, lasterketarekin aurrera egingo genuke. Korrikalari bat, bost, ehun... guretako denak berdindu nabarmendu du etxarriarrak.

## Eskertuta

Udaberrikoek antolatu izan dute beti Mendira Joan Etorria, eta lasterketa oso herrikoa da. "Horregatik Etxarriko jendea laguntzeko beti prest egoten da" adierazi du Lizarragak, eta jasotakoa bihotzez eskertu du. "Boluntario guztiei eskerrak eman nahi nizkieke, eta baita urte hauetan guztietan babesle izan ditugun Etxarriko denda, komertzio eta Sakanako enpresa askori eta Etxarri Aranazko Udalarari, beti ondoan izan ditugulako" gaineratu du.

Ildo honetan, aurten ez dela diru saririk emango azaldu du Lizarragak. "Pandemia dela eta, komertzio eta lantegi guztiendako egoera zaila dela jakitun garen, aurten ez dugu diru laguntzarik eskatu, eta, hortaz, ez dugu diru saririk emanen. Txapelak eta trofeoak banatuko ditugu" aipatu du. Horrela, irabazleek txapela eta trofeo bana jasoko dituzte, bigarrenek eta hirugarrenek trofeo bana, lehen beterekoek trofeo bana eta lehen hiru etxarriarrak trofeo bana. Eta, horretaz gain, urtero moduan Borda Saria banatuko da. Hau da, Borda jatetxe paretik pasatzen diren lehen gizonezkoak eta lehen emakumezkoak aipatu jatetxean otordua lortuko dute. Errekorra gaindituz gero (Juan Mari Garain, 42:50, eta Virginia Perez, 52:18) korrikalariak gazta jasoko luke sari. 2019ko edizioan, azkenean, Beñat Katarain lakuntzarrak (45:24) eta Igone Campos (56:36) gailendu ziren.

## Zain

Guaixeko erredakzioa ixterakoan, Udaberrikoak erabaki eta jakinarazpen ofizialen zain zeuden. "Pandemiagatik zeuden murrizketak zirela eta, hasiera batean korrikalarien irteera mailakatu egitea aurreikusten genuen, hau da, lehenengo 75 korrikalari ateratzea eta gero gainontzekoak. Baina murrizketak bertan behera geratzen direla jasotzen duen erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) argitaratzen badute, pentsatzen dut batera irtengo direla korrikalari guztiak. Esperoan gaude" azaldu du Lizarragak.

Lasterketa bukatutakoan auzatea izanen da. "Orain arteko murrizketekin auzateak egin ahal ziren, baina modu indibidualizatuan. Hau da, denondako

jarri beharrean, korrikalari baikoitzari berea emanda. Eta guk ideia hori geneukan, argi baikenuen auzatea egingo genuela. Ikusten dugulako oso polita dela, jendea elkartzen dela, korrikalariak euren artean hitz egiten dutela, lasterketa nola joan den aipatzeko eta beste. Beraz, erabaki ofizialen esperoan gaude, auzatea nolakoa izanen den erabakitzeke" azpimarratu du Lizarragak.

## Sakandarrei gonbita

Bukatzeke, etxarriarrak sakandarrak lasterketan aritzera eta proba ikustera hurbildu daitezela animatu ditu. "Jendea animatu dadila Etxarri Aranatzera etortzen, bai korrika egitera, eta baita basora joatera lasterketa jarraitzera, oso polita izaten baita korrikalariak Bargara gora eta behera korrika ikustea. Pentsatzen dugu herrian sekulako giroa egongo dela; ziur. Murrizketarik gabeko lehenabiziko asteburu famatu hau dator, eta jendea animatu nahi dugu Etxarrira etortzera, ongi pasatzera eta disfrutatuzera" gonbidatu du Aiert Lizarragak.

## Biharko erronka, bertan behera

Bihar, larunbata, zen aurkeztekoa Sakana Trail Estazioa, 10:00etan, Etxarri Aranazko kanpinetik abiatuko zen mendi lasterketa erronka berezi batekin, baina ekimena bertan behera geratu da partaide baten lesioa tarteko. Aurki data berria zabalduko dute.

## "SAKANDARRAK ANIMATU DAITEZELA, KORRIKA EGITERA EDO PROBA IKUSTERA" AIERT LIZARRAGA

## 1. AUTONOMIKOA GIZON.

### 5. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lerinés - Lagun Artea 3-1

### SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1. Lerinés 12

6. Lagun Artea 5

### HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

17:00 Lagun Artea - Mendi (Zelai Berri)

### Lagun Arteak Mendi hartuko du

Bi arerio zuzenen arteko partida izango da etzi Lakuntzan jokatu dena.

## 1. AUTONOMIKOA EMAK.

### 3. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Mulier - Altsasu 20-0

### SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA

1. Mulier 9

10. Altsasu 0

### HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:00 Altsasu - Castejon (Dantzaleku)

### Altsasu, aurrekoa ahaztera

Mulierren kontrako jipoia ahaztuta, Castejon taldea du buruan Altsasuk

## FUTBOL PREFERENTEA

### 3. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Arenas - Etxarri Aranatz 3-4

### SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1. San Miguel 9

10. Etxarri Aranatz 4

### HURRENGO JARDUNALDIA

Atsedernaldia

### Etxarriren lehen garaipena

Arenasen kontrako 3 puntuak lortuta, Amaiaen kontra ere asmo bera du Etxarrik.

## FUTBOL ERREGIONALA

### 2. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Baztan B - Altsasu 1-4

### SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1. Altsasu 6

2. Aurrera 6

### HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

18:00 Baztan - Altsasu (Elizondoa)

### Altsasuk atsedena hartuko du

Lehendabiziko bi partidak irabazi eta gero, atsedena jardunaldia dute gorritxoek.

## ARETO FUTBOLA Aralar

### Mendik eta Xotak 3. mailari ekin diote

3. mailan, Aralar Mendik San Juanekin bina berdindu zuen eta Zintroniko izango du aurkari larunbatean 18:00etan Erriberan. Xotak 0 eta 5 galdu zuen Abiltasen kontra eta larunbatean, 19:45ean San Juanen kontra jokatu du, Iruñean. Emakumezkoen seniorretan, 1. mailan Xotak Zumadia du aurkari, eta 2. mailan Xota B-k Orbina.





Pilotu sakandarrak auto politak prestatzen ari dira. Mugimendu handia dago, egunotan, pilotuen bajeetan. SAKANA MOTORSPORT

# Urbasako motor festa, bueltan

**AUTOMOBILISMOA** Bihar, larunbata, jokatu da 39. Urbasako Igoera. 100 pilotuek 13:00etan ekingo diote lehen entrenamenduari eta haren segidan probako bi mangak etorriko dira. Sekulako giroa espero da. Errepidea gaur, ostirala, 19:00etan itxiko da

**Maidar Betelu Ganboa** OLAZTI  
Olaztin guztia prest dago larunbatean jokatu den 39. Urbasako Igoera automobilismoaren festa handia izateko. Sakana Motorsport eskuderiako kideak muntaketa lanetan eta azken orduko xehetasunetan murgilduta daude dena behar bezala prestatzeko. Gaur, ostirala, 19:00etan, Foruzainek Urbasako portua itxiko dute.

Automobilismo proba honek milaka jarraitzaile biltzen ditu, eta Nafarroako Gobernuak pandemiagatik ezarritako murrizketak bertan behera utzi dituenek, oraindik ere festa giro beroagoa espero da. "Jendea aurretik gogotsu bazegoen, murrizketak bertan behera geldituko direla jakin zenetik, are gehiago. Festa handiagoa izango da oraindik" aipatu du Sakana Motorsporteko Raul "Patxu" Lopez Bartolomé.

Sakana Motorsportek 2011n hartu zuen Urbasako Igoera antolatzearen ardura. Hortaz, 10. urtemuga ospatuko du eskuderia sakandarrak. Taldea berrindartu dute, emakumezkoak ere sartu dira klubera, eta giro ona dute.

## Aforoa beteta: 100 pilotu

Urbasako Igoera oso proba berezia da pilotuendako, kuttuna. Proba mitikoa da, erakartzen du, eta aurten ere bete egin dira antolakuntzak zehaztutako 100 tokiak. Azken orduko aldaketarik ezean, igoerako azken edizioko txapeldunak, Garikoitz Flores

**"JOSEBA IRAOLA ETA GERARD DE LA CASA DIRA FAVORITOAK; GERO, IKUSIKO DA" RAUL 'PATXU' LOPEZ**

lakuntzarrak (3:20.920), ez du parte hartuko, Espainiako Igoeren Kopan murgilduta dagoelako.

Bera ez, baina hainbat sakandarrak egongo dira irteera puntuan: Iker Palacios (BRC B52), Iñigo Zelaia (Speed Car GT1000), Delfin Goikoetxea (PRM Proto Alpine), Josu Berastegi (Speed Car GT1000), Iban Lopez de Goikoetxea (Renault 5 GT Turbo), Urko Berdud (Renault Clio Sport), Arkaitz Irigoien (Renault Clio), Ander Gurmindio (Renault Clio Sport), Mikel Mendinueta (Peugeot 205 GTI), Iker Askargorta (Opel Astra), Eneriz Besga (Citroën Saxo VTS), eta Asier Lopez de Sabando (BMW E30), guztiak Sakana Motorsport eskuderiakoak. Arakil eskuderiarekin zenbait kidek ere parte hartuko dute, Sakana inguruko herrietakoak.

Proba irabazteko faborito nagusiak Joseba Iraola (Nova Np01)

eta Gerard de la Casa (Ford Fiesta) direla adierazi dute antolakuntzatik. Josu Berastegi urdiaindarrak auto ederra prestatu duela ere gaineratu dute, eta Iker Palacios eta Iñigo Zelaia ere auto onak dituztela. Gainontzeko pilotuak ere dena ematera aterako dira, eta lehia eta ikuskizun handia espero dira.

## 5,93 kilometroko igoera

Olazti eta Zudaire arteko NA-718 errepidean jokatu da proba, 38,050 km puntutik 32,120 km puntura. Hau da, ibilbideak 5,93 km eta 285 metroko desnibela izanen du, eta Olaztitik Urbasako portua igo arte jokatu da. Lehen zatia oso azkarra da, eta bigarren zatia, aldiz, teknikoagoa da, bihurtuz betetakoak. Probak trazatu hau duenetik Iñigo Martinezek du Formulen kategoriatik errekorra (3:02.11, 2004 urtea), eta Joseba Iraolak CM mailako errekorra (3.13.821) eta turismo mailako errekorra (3.26.775). Urbasako Igoera Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketarako, Nafarroako Junior Mailako Mendi Igoeren Txapelketarako eta Errioxako Mendi Igoeren Txapelketarako puntuagarria izango da eta hainbat kategoriatan jokatu da.

## Parke naturala zaintzeko deia

Urbasa parke naturala da, eta antolakuntzatik zentzuz jokatzeko eskatu diete igoera jarraitzera bertaratuko diren zaleei. Bezpe-

ratik igoko direnei, Urbasa-Andia natur parkea behar bezala zaintzea eta garbi izatea eskatu diete. Eta egunean bertan hurbilduko direnei, berdin. "Ingurunea errespetatu dezatela, eta sortzen duten zaborra gero bildu eta eraman dezatela. Parke naturala zaindu beharra dugu, ezin da guztia hankaz gora utzi" berretsi dute Sakana Motorsporteko kideek.

Halaber, antolakuntzari eta komisarioei kasu egitea eskatzen die antolakuntzak zaleei. Proba baimendutako tokietatik jarraitzeko deia egin diete, inolako arazorik gerta ez dadin. Izan ere, segurtasuna bermatzea da antolakuntzaren beste kezka nagusietako bat. Eta, jakina, motorraren festan "lasterketaz goza dezatela eta ongi pasa dezatela" opa diete automobilismo zaleei.

## Beste xehetasun batzuk

Gaur, ostirala, 16:30etik aurrera proban parte hartuko duten autoen egiaztapenak hasiko dira, Clinker jatetxe parean. Larunbatean, 13:00etan, lehen entrenamendu ofiziala izanen da, eta segidan, probako bi txanda ofizialak jokatu dira. Bukieran, 19:30ak aldera izango da sari ematea, Clinker parean.

Sariei dagokienez, *scratch* edo sailkapen absolutua sarituko da, kategoriatan bakoitzeko onenak, lehen pilotu junior nafarra, eta Sakana Motorsport Trofeoa, pilotari sakandar onenak.



Urbasako Igoerak historia handia du. UTZITAKOIA, ARTXIBOIA

## Mitikoa

Real Automovil Club Vasco Navarrok antolatu zuen lehen Urbasako Igoera, 1968an. 43 piloturen artean Claudio Aldecoa gasteiztarra gailendu zen. Sakandar aitzindariak Jose Luis Goikoetxea eta Fernando de Felipe izan ziren. Urrezko urteak 70. hamarkadakoak izan ziren.



Jon Iturrioz Sanchez, Half Triatlon Iruñea triatloian txirrindularitzako zatia osatzen. UTZITAKOIA

# "Leihatzea baino, niri entrenatzea da gustatzen zaidana"

**JON ITURRIOZ SANCHEZ SAKANA TRIATLOI TALDEA**

**AQUABIKE** Irailaren 18an jokaturako Bilbao Half Triathlon lasterketan 50-54 urteko Espainiako Aquabike txapelketa izan zen Jon Iturrioz elite mailako igerilari ohia

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU

Irailaren 18an Bilbao Half Triathlon lasterketa jokatu zen, aldi berean Distantzia Erdiko Espainiako Triatloi Txapelketa eta Espainiako Aquabike Txapelketa zena. Sakana Triatloi Taldeko Jon Iturrioz Sanchez altsasuarra aquabike modalitatean aritu zen, eta seigarren sailkatu zen, bere kategorian (50-54 urte), lehena. **Zer da aquabike?**

Triatloian modalitate bat da. Triatloiak igeriketa, txirrindularitza eta atletismoa batzen ditu;

duatloiak txirrindularitza eta atletismoa; eta aquatloiak igeriketa eta korrika. Bada, aquabike modalitateak igeriketa eta txirrindularitza hartzen ditu. Hemen ez da oso ohikoa, baina Europan bai. Espainiako Triatloi Federazioak

**"KONTENTU NAGO, BAINA NEURRIAN; TRIATLOIAREN PAREAN AQUABIKE-A BIGARREN MAILAKOA DA"**

zioak aquabike-a sustatu nahi du, eta aurtengo Erdi Distantziako Espainiako Triatloi Txapelketan, triatloiarekin batera, aquabike modalitatea sartzea erabaki zuen. Horrela, triatloi proba osoa egin beharrean aquabike modalitatean aritzera animatu nintzen, horiek direlako niri hobeto datozkidan kirolak: igeriketa eta txirrindularitza. **Izan ere, igeriketatik zatoz.**

Bai, ni beti igerilari izan naiz, Ordizia Kirol Elkartearen Urpekoak taldekoa. Igeriketako modalitate

berezi bat egiten nuen: hegats igeriketa. Hau da, hegats edo aleta batekin egiten nuen igeri. Gaztea nintzenetik modalitate horretan goi mailako igerilari izan nintzen: Espainiako txapelketa izan nintzen askotan, errekorrak egin izan nituen, eta Europako eta Munduko Txapelketetan 15 urte inguru parte hartu nuen. Horiek izan ziren nire kirol bizitzan lortutako lorpen nagusienak. Asko ibili nintzen, 12 urtetatik 40 urtera, 40 urte bete nituenean bukatu baitzen nire igerilari kirol bizitza. 28 urte lehiatzen egoteaz nolabait aspertu nintzen, motibazioaren aldetik batez ere. Horregatik, beste kirol batzuk egiten hasi nintzen. Korrika hasi nintzen, eta maratoi batzuk egin nituen, Donostiakoa tartean, baina korrika ez nintzen guztiz ongi aurkitzen. Duela bospasei urte bizikletan hasi nintzen, errepideko bizikletarekin. Altsasun badago talde bat larunbatero irteerak egiten dituen eta eurekin bat egin nuen. Giro oso ona dago taldean, 40 kide inguru gara eta "Los descamisados" deitzen gara.

**Izen hori nondik dator?**

Gure arteko txantxa bat da (kar, kar...). Izen hori duen ekipazioa daramagu eta astebururo ateratzen gara buelta bat ematera. Egia esan, ia egunero ateratzen da norbait. Suhiltzaileen Parkearen ondoan bildu eta handik egiten ditugu irteerak.

**Igeriketa elitean ibili den jende askok igeriketa uzten du. Ez dakit aspertzeko ote zareten.**

Egunero igerilekuan luzeak eta luzeak egitea, bakarrik, laukitxoak kontaktzen... horrek burua asko erretzen du. Bestalde, txikitari jendeari asko erretzen zaiola iruditzen zait. 12-14 urterekin emaitzak lortu behar dira, sekulako egurra, eta 20 urtetik gora askok utzi egiten dute. Hori ez zen nire kasua izan. Nik 40 urterekin Espainiako Hegats Igeriketa Txapelketa irabazi nuen, eta 13 urterekin parte hartu nuen, lehendabizikoz.

**Ba al dakizu zenbat aldiz irabazi duzun Espainiako Hegats Igeriketa Txapelketa?**

**"28 URTEZ HEGATS-IGERIKETAN LEHIATU NINTZEN ETA NIRE LORPEN NAGUSIAK HORIEK IZAN DIRA"**

Ez. Horrenbeste urte dira, eta txapelketa bakoitzean hainbeste distantzia daude... Txapelketa batean agian 6 domina lortu ditzakezu. 28 urtetan 100 domina baino gehiago izango dira, baina ez dakit zenbat. Niri distantzia luzeagoko txapelketak dagozkit hobe; geroz eta helduago, geroz eta distantzia luzeagoak, adina-rekin esprinta galtzen baita.

**Eliteko igeriketa utzi eta gero, korrika eta bizikletan hasi zinen, eta gero triatloia iritsi zen.**

Bai, triatloian Sakana Triatloi Taldean aritu izan naiz hasieratik. Aurten Half Triathlon Iruñea proba egin nuen maiatzean, distantzia erdiko triatloia: Alkozko urtegiaren 1.900 metroko igerialdia, bizikleta hartu eta Iruñeraino joan (77 km), eta Iruñean 17 kilometroko oinezko lasterketa. Oso proba polita da, Iruñean Gotorlekuan barna ibili ginen, oso gustura. Nire mailan, 50-54 urte artekoan, seigarren edo zazpigarren sailkatu nintzen, hirugarren nafarra (4:24:36). Dena den, korrikako sektorea okerre-na da niretzat. Igeriketan edo bizikletan lehenen artean iristen nintzela ikusten nuen, baina korrika denek pasatzen ninduten alde guztietatik. Proba bizikletako sektorean bukatuko balitz, hobeto bukatuko nuela ikusten nuen; eta irailaren 18an jokatu zen Bilbao Half Triathlon txapelketan aquabike txapelketa egongo zela jakin nuenean, pentsatu nuen: "hau da nire aukera". **Zein distantziakoa zen?**

Distantzia erdiko proba zen, eta aldi berean, Espainiako Triatloi Txapelketa. 1.000 triatleta inguruk hartu zuten parte triatloi proban, eta 170 inguru aritu ginen aquabike modalitatean; hau da, probako lehen bi segmentuak egin genituen: 2 km igeriketan eta 85 km inguru txirrindularitza. Gustura aritu nintzen. 3 ordutan egin nuen proba (3:00:07), eta topera bukatu nuen. Izan ere, triatloian aritzera ohituta nago, eta korrikako zatia kenduta, helmugara iritsita pentsatu nuen: "ia? hau hemen bukatu da?". Aquabike modalitatean nire mailan, 50-54 urte artekoan, Espainiako txapelketa izan nintzen, eta aquabike absolutuan hamabigarren.

**Pozik egongo zara, zure mailan Espainiako txapelketa izatea ez da txantxa.**

Beno, bai, baina neurrian. Kontentua nago izandako errendimen-



Jon Iturriz, hegats igeriketako txapelketa batean parte hartzen. UTZITAKOIA, ARTXIBOA

duarekin, baina besterik gabe. Izan ere, triatloia ondoan aquabike-a bigarren mailako txapelketa bat da. Triatloia gehiago gustatzen zait, hiru kirolak egiten dituzulako. Aquabike-a errazago egin zitzaidan, baita entrenatzeko ere. Izan ere, triatloia ondoan zailagoak dira, hiru kirolak kontrolatzea kosta egiten da. Aquabike-a, nolabait esanda, deskafinatua da, baina badakit triatloian ez dudala horrenbeste aukerarik. Dena den, ez ditut triatloiak baztertu. Aurten, lehen esan dudana bezala, Half Triathlon Iruñea egin nuen, osoa. Hurrengo urtean, 2022an, Half Triathlon Iruñea proba Espainiako Txapelketa izango da, aurten Bilbokoa izan den bezala, eta dagoneko izena eman dut.

#### Normalean zenbat entrenatzen duzu?

Kirola egitea gustuko dut, eta ia egunero egiten dut zerbait. Nik, normalean, astero hiru saio korrika, hiru saio igeri, hiru saio bizikletan eta hiru saio gimnasio egiten ditut. Telefono mugikorrean egiten ditudan entrenamendu saioak jasotzen dituen programa bat daukat. Azken hiru astetan, 21 egunetan 26 saio egin ditut (elkarrizketa astelehenean egin zen). Egundero zerbait egiten dut, eta horrela urte guztia. Eta egunero bi kirol egiten saiatzen naiz. Esaterako, gimnasia joan eta segidan igeri egin, edo bizikletan ibili, trantsizio bat egin eta korrika egin... Astean 12 saio ateratzen ditut.

#### Entrenamenduak lanarekin eta familiarekin uztartzeko arazorik ba al duzu?

Unibertsitateko irakaslea naiz Donostiako Informatikako Fakultatean eta goizetan lan egiten dut. Beraz, arratsaldeak libre

izaten ditut, eta seme-alabak ere koskortu direnez, orain tarte gehiago dut entrenatzeko.

#### Denboraldi bukaera da eta orain, printzipioz, atsedean hartuko duzue. Zer da zuretako atsedean hartzea?

(Kar kar...) ba igerilekuetara joan eta 100 luze egin, edo bizikletan buelta bat eman, edo Sara bikotearekin Intsusburura buelta bat ematera joan... Denboraldia bukatu da, baina ikusi dituzu aste honetan mugikorreko programako datuak. Erlaxatu, gure modura erlaxatzen gara.

#### Beraz, zure bizitza kirolari lotuta dago guztiz.

Modu batean edo bestean bai. Etxean ere guztiok egiten dugu kirola. Dena den, kirolari gehienak urtean zehar txapelketa pila batera doaz, baina nik urtean pare bat egiten ditut, gehienbat, entrenatzeko orduan motibazio hori handiagoa izan dadin. Izan ere, lehiatzea baino, niri entrenatzea da gustatzen zaidana, sasoiaren egotea, nire buruarekin gustura sentitzea, Altsasuko taldearekin buelta egitera joatea, hori guztia. Proba bat prestatzen duzunean, maila jakin batean entrenatzen duzu, burua lehiaketan duzulako; baina denboraldia bukatuta, entrenatzera ateratzen zara baina inolako presiorik gabe. Eta hori dut gustuko. Exigentzia aldetik ezberdina da. Lagunekin taldean ateratzen zarenean, hori ez duzu entrenamendu bezala ikusten: lagunekin ateratzea da.

**"IGERILEKUAN LUZEAK ETA LUZEAK EGITEA, EGUNERO, BAKARRIK; HORREK BURUA ASKO ERRETZEN DU"**

#### Triatloia ez da gogorregia? Hiru kirolen arteko trantsizio hori ez al da gorputzarendako gehiegikeria bat?

Ez du zertan, triatloian distantzia ezberdinak daude eta bakoitzak ongi dagokiona aukeratu behar du. Eta trantsizioak ere entrenatu egiten dira. Esaten dute triatloiko laugarren kirola hori dela, trantsizioak egitea. Eta trantsizioek badute berea; batzuetan denbora asko galdu egiten duzu trantsizioan, pedalak direla, zapatillak direla... Distantzia luzeko probetan elikadura ere oso garrantzitsua da. Hori ere entrenatu egin behar da.

#### Nola ikusten duzu triatloia Sakanan?

Normalean txapelketetan maila onean aritzen dira hemengo kirolariak. Udan triatloia campusa antolatzen du Sakanako Mankomunitateak eta erantzun ona du. Urte osoko jarraipena izango duen triatloia eskaintzarik edo eskolarik ez dago, eta normalean triatleta horiek ikasturtean igeriketara edo atletismora joaten dira eta udan txirrindularitzara edo triatloia campusera, baina moldatzen dira.

#### Beraz, datorren urteko helburua gorritz markatu duzu: Half Triathlon Iruñea, aldi berean Espainiako Txapelketa izango dena.

Bai, maiatzean izanen da eta jada izena eman dut. Bestalde, Bilbao Half Triathlon Europako Txapelketa izanen da datorren urtean. Irailean jokatu da, eta oraindik ez dakit parte hartuko dudana ala ez. Izan ere, nik normalean uztailean despeditzen dut denboraldia, gero familiarekin oporretara joateko. Aurten, Bilbon aritu nintzen, uda guztia entrenatzen ibili naiz, eta datorren urtean ere hala ibiltzea... ez dakit, ikusiko dut.



Zabaletak 2021ean jokaturako binakako lau torneoak irabazi ditu. ASPE

## Zabaleta, neguko eta udako binakako erregea

**PILOTA** Gehien nabarmendu den pilotaria izan da, Binakako Txapelketa eta udako 3 torneoak irabazi baititu

Bukatu dira udako pilota torneoak eta Lau eta Erdiko Txapelketaren atarian gaude. Eta udak eman duena baloratzeke garaian, berriro ere, izen bat gailendu da guztien gainetik: Jose Javier Zabaleta.

Etxarrengo atzelaria onena izan zen neguan: Binakako Txapelketa irabazi zuen Danel Elezkanorekin, eta Buruz Burukoan ere sekulako mailan aritu zen, finalerdietan erori baitzen. Zabaletak bide beretik jarraitu zuen udan, nahiz eta tarteka eskuekin arazoak izan. Binaka jokatu dituen torneo guztiak irabazi ditu,

San Fermin Torneotik hasita (Peio Etxeberriarekin), berriki aste bateko epean irabazi dituen Masters CaixaBank (Olaizolarekin) eta Logroño San Mateo (Victorrekin) torneoekin bukatuz. Zabaletaren estatistikak ikusgarriak dira: 2021ean binaka jokatu dituen 31 partidetatik 25 irabazi ditu, %80.

Gaur egun ez dago Zabaletari itzalik egingo dion atzelaririk, eta garaitezina dirudi. Berak, bitartean, oraindik ere lanean jarraitu beharra duela dio, "ikas-teko eta hobetzeko". Noraino helduko ote da?

# C.A. OSASUNA RAYO VALLECANO

**URRIAK 2, LARUNBATA**  
**14:00-16:00**  
(IRRATIKO KONEXIOA 13:45EAN)

**EUSKALERRIA  
IRRATIAREN BIDEZ**

## beleixe

**ZUZENEAN**

**948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS**

# Resanok finalerako tokia lortzeko itxaropena du

**AIZKORA** Nafarroako 1. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu da bihar, larunbata, 18:00etan, Lekunberrin. 8 aizkolari lehiatuko dira finalerako jokoan dauden 5 postu lortzeko, eta dorrobarrak horien artean egon nahiko luke

**Maidar Betelu Ganboa** DORRAO

Hitzordu garrantzitsua du larunbatean Iban Resano Igoa aizkolari dorrobarrak. Lekunberriko frontoiko plazak Nafarroako 1. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa hartuko du 18:00etan eta azaro bukaeran Donezteben jokatu den final handirako txartelak daude jokoan. Zortzi aizkolari lehiatuko dira: Iker Vicente, Jon Rekondo, Julen Kañameres, Eneko Saralegi, Julen Olano, Asier Pellejero, Joxean Etxeberria eta Iban Resano. Lehen bost aizkolariak azaroaren 19an edo 21ean Donezteben jokatu den final handirako sailkatuko dira, eta azken sailkatuak maila galduko du.

"Lekunberrin asko dago jokoan, bai. Nik dezente entrenatu dut, eta finalerako sailkatzeko aukera izatea nahiko nuke. Argi dago lehenengoan artean sailkatzea oso zaila dela, baina nik esperantza daukat eta ea laugarren edo bosgarren postuetan sailkatu naitekeen. Dena den, hori larunbatean ikusiko da. Ea mozketan eta kortetean nola ibiltzen naizen, eta gainontzekoak ere nola ibiltzen diren, jakina" azaldu du, irribarrez, Ibai Resanok. Egin beharrekona lana bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat erdibitza izango da.



Resano, ezkerrean, eta Patxi Mindegia, Lakuntzako txapelketa batean. ARTXIBOA

## "EA ENTRENAMENDU GOGOR HORIETATIK BEHARREZKO TXISPA HARTZEN DUDAN" IBAN RESANO

### Plazako puntua faltan

Resano kanporaketarako gogotsu dago, baina, aldi berean, urduritasun pixka batekin. "Txapelketetan beti duzu urduritasun puntu hori, errespetu hori. Eta azkenaldian honetan ia erakustal-

dirik izan ez dugunez, gehiago, agian" nabarmendu du. Hori botatzen du faltan, erakustaldi eta txapelketek ematen duten esperientzia edo bultzada hori. "Ongi entrenatu dut eta fisikoki uste dut ongi nagoela, baina erakustaldiek ematen duten puntutxo hori falta zait. Plaza, finean. Entrenamenduetan, erritmo bat hartzen duzu eta uste duzu ezin duzula gehiago eman, baina plazako erakustaldietan beti pixka bat gehiago ematen da, eta gero txapelketetan nabaritzen da. Aurten, faltan botako dugu" dio.

### Betiko txapelketetara buelta

Pandemiagatik ezarrita zeuden murrizketak bertan behera geratu direnez, horrek mesede egingo dio kanporaketari. "Noski, orain arte egin diren txapelketa askok pena ematen baitzuten. Hasieran jenderik gabe, gero aforo mugatuekin... lehenengo txapelketetara bueltatzeko gogoia dugu, ikusle asko eta giro beroarekin" nabarmendu du Resanok.

Lekunberrikoa ez da plaza txarra. "Esango nuke Larraun eta Lekunberri aldean hemen baino zaletasun gehiago dutela aizkorarako. Ea larunbatean giroa dagoen, polita izango da kanporaketa ondoren jendearekin hizketatzea, egin dituzun akatsak eta gauza onak komentatzea..." gaineratu du.

### Dena emango du

Iban Resanorendako Iker Vicente eta Jon Rekondo dira faborito argiak. "Egin dituzten azkeneko txapelketak ikusita, lehen bi postuetan ikusten ditut. Sekularo sorpresa izango litzateke hor ez egotea" dio dorrobarrak.

Azkenaldian Juanjo Lopezekin eta Josu Santamariarekin dabil entrenatzen, eta kanporaketan euretaren baten laguntza izango du. "Azkenean, entrenatzen gabiltzanekin ibiltzen gara. Bietako bat etorriko da, edo, agian biak, ahal izanez gero" azaldu du. Euren aholkuak eta animoak ongi etorriko zaizkio. Bestalde, azkeneko aste hau lasai hartu duela aitortu du. "Aste honetan, ibiltzera atera, eta aizkora pixka bat probatu, hori izan da asmoa. Eta gehienbat lasaitasuna. Ea egin dituzten entrenamendu gogor horietatik txispa hartzen dudana. Kanporaketan ahal dudana guztia egingo dut, ea nola ateratzen den" espero du.

## SASKIBALOI Basket Navarrak Altsasun jokatu du bihar

Saskibaloi zaleek hitzordu interesgarria dute bihar, larunbat arratsaldean, Altsasun, goi mailako partida batez gozatzeko aukera izango baitute, Zilarrezko Mailakoa, hain zuzen ere. Basket Navarra taldeak Zornotza izango du aurkari 18:00etan Zelandin hasiko den lagunarteko partidari. Aurki hasiko den liga prestatzeko, partida interesgarria.



Banakako Txapelketako finalistak. IRATXO

## BOTXA Banakako Botxa Txapelketa Julen Iragirendako

Binakako Iratxo Botxa Txapelketa despeditu eta berehala hasi zen Banakako Botxa Txapelketa. Bederatzi botxalarik hartu dute parte, eta Iratxo elkarteko botxategian hasierako ligaxka eta final laurdenak jokatu eta gero, aurreko ostiralean finalak jokatu ziren. Final handian Julen Iragik Floren Berazamendean hartu zuen, eta 3. eta 4. postua erabakitzeke partidari Mikel Ollo gailendu zitzaion Mikel Goldarazenari.

Irurtzunen, botxak ez du etenik. Bihar, larunbata, Elkarteen Artekoko Botxa Txapelketa jokatu da Iratxon. Irurtzuno bi bikotek –Mikel-Floren eta Tere-Migel), Txantreako bi bikotek, Berriozarko hiru bikotek eta Antsoaingo bikote batek parte hartuko dute. 10:00etan hasiko dira final laurdenak, eta bazkalostean, 16:00etan, finalerdien txanda izango da. 18:00etan 3. eta 4. postua erabakitzeke partida eta 19:00etan final handia jokatu direla aurreikusten dute Iratxoko kideek.

## Sakanako Harri Jasotze Eskolan izena ematea zabalik

Harri jasotzean aritzeko indarra baino teknika dela garrantzitsuagoa esaten du Sakanako Harri Jasotze Eskolako irakasle Mikel Lasartek. Eta, hain zuzen ere, teknika horiek guztiak irakasteko prest dago, azaroaren 8an zabalduko baita Sakanako Harri Jasotze Eskola.

Sakanako Harri Jasotze Eskola 2004/2005 denboraldian sortu zen, Sakanako Mankomunitateko

Kirol Zerbitzuak bulkatuta. Helburua herri kirolak sustatzea da, eta, zehazki, harri jasotzean trebatu nahi dutenei bitartekoak ematea. Izan ere, harri jasotzean trebatzea zaila izaten da halako kiroletan aritzen den senitartekorik ez dutenendako, materiala lortzea eta irakasleak lortzea konplikatu baita. Zailtasun horiei irtenbidea emateko sortu zen Sakanako Harri Jasotze eskola, eta 2004 urtetik

makina bat sakandar, larraundar eta iruindar pasatu da bertatik.

16 urtetik gorako helduek edo neska-mutiek eman dezakete izena, Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo [kirolak@sakana-mank.eus](mailto:kirolak@sakana-mank.eus)). Eskola antolatuta ahal izateko Nafarroako Gobernuaren eta Irurtzuno Udalaren laguntza jaso du Mank-ek.

Hasieratik Mikel Lasarte harri jasotzaileak zuen eskolaren ardura. Azaroaren 8an hasiko dira klaseak, ekainera arte luzatuko direnak, asteartean, 18:30etik 20:00etara, Irurtzunen. Behin izena emanda, derrigorrezkoa izango da klasea joatea.

Harri jasotzea ez omen da gehienok pentsatzen dugun bezain gogorra. Hori dio Mikel Lasartek, eta kirol honetan interesa duten guztiei bertara jotzera animatu ditu.

Eneida Carreño Mundiñano /

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

Oihane Andueza lakuntzarrak irakaslea da. Baina idazle ere bada. 2019 *Darse cuento* eta, ondoren, euskarazko bertsioa, *Kontu handiz* kaleratu zituen, eta atzo bere bigarren liburua aurkeztu zuen Lakuntzako Tximomena jatetxean: *Aittune, iluntasunaren beldur naiz*. Publikatze honetan egin duen Arte terapiko masterra oso nabaria dela sentitu du. Izenburuak dioen bezala, beldurri buruzko ipuin bat da. Haurrendako bideratuta dagoen arren, helduek ere irakur dezakete. Izan ere, edonork izan ditzake beldurrak.

**'Kontu handiz' kaleratu zenuen. Zeinentzako liburua da?**

Galdera hori ez dakit oso ongi erantzuten. Maketatzaileak esan zidan 0 eta 99 urte bitarteko ipuinak zirela. Jendearekin hitz egiten, bertsio ofiziala bezala, sei urtetatik gorakoendako zela esan nuen. Baina orain urtebete alaba daukat eta oso gustuko ditu marrazkiak. Orduan, non jartzen dugu adina? Irakurtzeko adina sei edo zazpi urtetik aurrera, baina disfrutatzeko adina ez nuke jakingo esaten.

**Ipuinak ez direlako bakarrik letrak...**

Idazten dudanean konturatzen naiz ere mezuak harremanei edo emozioei dagokienez, beti dutela zentzu edo mezu bat. Hainbat gurasok esan didate haurrei zuzentzen naizela, baina gurasoendako ere baliagarri egiten zaiela. Izan daiteke. Idazterakoan asko sinisten dut umeen jakiturian. Nahiz eta berbalki ez adierazi, beraiek dakitena baino askoz gehiago adierazten dute. Idazterakoan kontuan izaten dut hori.

**Orain, 'Aittune, iluntasunaren beldur naiz' kaleratu duzu. Zertaz dihoa?**

Honekin gauza bera geratzen zaigu. Gertatzen zaigu diot prozesuak amankomunean bizitzen ditudalako, eta nahi gabe pluraletan hitz egitea ateratzen zait. Euskarazko testua zuzendu zidanak, Rafak, esan zidan umeendako ipuina dirudiela, baina agian ez hainbeste. Ume batek beldurraren inguruan aitona-ekin hitz egiten du, eta aitona bere jakituria medio, bide hori zeharkatzen laguntzen dio. Badago parte txiki bat niri pila bat gustatzen zaidana, eta *Kontu hartuz*-etik hartu dudana, eta da orrialde bat non umeek beraiek sentitu dutena edo ulertu

# "Umeen berezko jakiturian asko sinisten dut"

OIHANE ANDUEZA IMIRIZALDU IDAZLEA

'Aittune, iluntasunaren beldur naiz' liburua argitaratu du lakuntzarrak. Herrian aurkeztu zuen atzo



Oihane Andueza Imirizaldu idazlea 'Aittune, iluntasunaren beldur naiz' liburuarekin.

dutena marrazteko aukera duten. Siplea izan daitekela dirudi, baina uste dut hartzaile pasibo izatek hartzaile aktiboagoa izateko aukera ematen duela. Hurbiltzeko edo bereago egiteko aukera ematen du. Bereztasun hori dauka.

**Zenbat pertsonaia daude?**

Neskatxo eta aittune, baina gero ere badaude beldurraren muntroak. Ipuinean joan etorrian ibiltzen dira, haurraren barrualdean geratzen dira edo haurrak egiten duenaren arabera uxatzen ahal ditu. Bidai horretan ibiltzen da. Polita edo esanguratsua da beldurrak pertsonalizatzea. Ipuinaren eskertzetan pertsona bat aipatu du berak esan zidalako ongi fijaszen bazara beldurrak ukitzen ahal direla. Nik ez nuen ulertu, baina pentsatu nuen: "goazen ikustera zer gertatzen den beldurrei forma ematen badiegu".

**Forma ematen bazaie, errazago uxatzen dira?**

Hori zen asmoa pixka bat. Formakuntza beti esaten da barruan ditugun gauza horiek ezin dira ukitu, baina aldi berean eragina dute gudan. Ahal badugu behin-

**"BARRUAN DITUGUN HORIEK NOLABAIT IRUDIKATZEN BADITUGU, EZ DAUDE HAIN BARRUAN"**

tzat nolabait, berdin du zein modutara, irudikatu, orduan ja ez dituzu hain barruan. Kanporatzeko modu bat da.

**Eta zergatik aittune?**

Esperientzia da. Beraiek duten esperientzia gazteek ez daukagu. Ibilbide berak irakaskuntza batzuk ekartzen ditu. Bi zentzu ditu. Lehenago esan bezala, nik asko sinisten dut umeen jakituria propioan, berezko jakituria horretan, orduan, sinbolikoki ere adierazi nahi nuen hori; umeen barne jakituria hori. Jakituria horri ereferentzia egiteko. Bi zentzu horiek ditu: literatura eta abstraktua.

**Nolakoa izan da ipuina idaztearen prozesua?**

Ipuin honek badu oso zentzu autobiografikoa. Ume txiki bat daukat eta berarekin gauak esna pasa ditut edo lo etenak behin baino gehiagotan zituen. Hortik suertatu zait pixka bat gaia. Horrela idatzi dut. Goizeko bostetan esnatzen zen haurra, lokartzen zen eta ni esna gelditzen nintzen. Denbora tarte sufrimendu horietan gutxienez goazen sortzera, sormenari ematera, pentsatu nuen.

**Zenbat denboran idatzi duzu?**

Hasierako ideia pasa den azaroan sortu zitzaidan eta azken testua borobilduta otsaila edo martxoa aldera bidali nuen. Oso tarte handia utzita batetik bestera. Ideia bat idatzi, gero testua modu batetara, gero beste batera... Sei-zazpi hilabete. Azkenean, abuztuan argitaratu genuen.

**Ilustrazioak zureak dira?**

Nik pintzela hartzeko... lau zirriborro egiteko bai, baina argitaratzeko ez. Victoria Garcia Macieuk egin dizkit. Aurreko ipuinean *Darse cuento* horretan bederatzi ipuin zeuden eta bederatzi horietako bat ilustratu zuen. Mallorkako neska bat da eta aurretik ezagutzen nuen. Iker Uriberekin hitz egin nuen, bertakoa izateko eta hori guztia baina azkenean datek ez dute bat egin.

**Lakuntzan aurkeztu duzu, gero zer?**

Egiten, denbora behar dut. Ume txikia izanda orain Lakuntzan egin berri dudana aurkezpena oso erraza izan da antolatzea, bertan delako. Baina Durango-ko Azokara joateko, esaterako, bertan geratu beharko nintzateke eta oraintxe ez dut posible ikusten. Autoedizioa da eta horrek esan nahi du nik mugitu eta zabaldu behar dudala. Baina, beste alde batetik, ez dut denbora asko. Presarik gabe.



Moises No Duerme kontzertuan. UTZITAKOA

# Moises No Duerme

Rap musikaren Nafarroako eszenan ezaguna da Moisés No Duerme musikaria. Los Noctambulos taldearekin kontzertua eskainiko du bihar, larunbata, 20:00etan, Olatzagutiako kultur etxean. Ikuskizun "anitza" izango dela esan du raperoak

**Erkuden Ruiz Barroso** OLATZAGUTIA Duela zenbait urte moda bat zen. Baina moda bihurtu zena, gaur egun, rap musika "asko hedatu" dela esan du Moisés No Duerme raperoak. Izen artistikoaren atzean Moisés Berdonce iruindarra dago, eta rap-aren eta musikaren munduan hogei bat urte daramatza. "17 urte nituenetik". Raperos de Emaus eta Brindisi Nero kolektiboaren parte izan zen, besteak beste. "Beti egin izan dituzte gauzak rap-aren Nafarroako eszenan". Bihar, urriak 2, larunbata, 20:00etan, Moisés No Duerme y Los Noctambulos-ek kontzertua eskainiko du Olatzagutiako kultur etxean, *Bira Nafarroan Barrena* programaren barruan.

Raperos de Emaus ez zen Nafarroako lehenengo rap taldea zan, "baina uste dut Raperos de Emausek mahai gainean jarri zuela nobedadea izan zela mili-

tatzen genuen gazte batzuk ginela. Auzoetako gaztetxeetan, herri festetan, gizarte mugimenduetan eta abar aritzen ginen. Horieta aitzindari izan ginen". Ordura arte tradizionalki eszena horretan "punk eta rock" taldeak ziren nagusi. "Mezua emateko modu berritzaile bat eskaini genuen". Ez ziren bakarrak izan, mugimendu horretan Afu Barañaingo taldea ere aritu zela aipatu du musikariak. "Diskurtoaren estetika aldatu genuen, baina mezua bera zen eszena horretan mugitzen ginelako".

Proiektu berriaren atzean ez dago Moisés No Duerme bakarrik. "Jende gehiago dago proiektuan, eta argi utzi nahi nuen". Los Noctambulosekin batera "banda hibrido berri bat ikusiko du jendeak". Raymi DJ Iruñeko disko jartzaile ezagunak; saxo, tronpeta eta tronboiaz osatutako haize sekzioak eta

Txo bideojokeyak, proiektzioak egiten dituenak, osatzen dute taldea. "Gezurra izango zen esatea Moisés No Duerme ikustera joango direla". Abestiak bereak dira, baina zuzeneko garatu duten formatua zerbait gehiago bada: "Nik bakarrik eman dezakedana baino gehiago".

## 2000ak

"Nik uste latente zegoen zerbait zela. Nire kasuan institutuan jendea rap-a entzuten hasten zen, grafitiekin hasten ziren, patinetearekin...". Korronte eta estetika berri bat izan zen hip hop kultura. "Momentu horretan, nire kintako edo belaunaldiko jende askok ezagutzen genuenarekin alderatuta zerbait berria bezala ikusi genuen". Komunikatzeko modu berri bat. Estatuan rap-aren urte "potenteak" izan zirela azaldu du. "Guk bide hau hartu genuen, beste bat ere har genezakeen,

baina hau aukeratu genuen. Beste garai bat izango balitz... beste gauza bat izango zen".

Hip hop kultura, gainera, "oso aktiboa" zen. "Edo margotzen zenuen edo break egiten zenuen edo diskoak jotzen zenituen edo abesten zenuen". Jendea batzera animatzen zuela esan du raperoak, "baina ez bakarrik ikus-entzule bezala". Hor sortu zitzaion Moisés No Duermeri idazteko jakin-mina. "Baina inolako espektatibarik gabe". Inguruko jende guztiak zerbait egiten zuela ikustean, bera rapeatzen hasi zen, "eta oso ongi gelditzen zen". Jolas bezala hasi zen, "gauregun dena bihurtu zen".

Rapeatzeko "erritmoa" eta rap asko entzutea behar da. "Inork ez du zerotik ikasten". Moisesendako gitarra jotzea zailagoa dela aipatu du. "Hasteko, gitarra bat behar duzulako". Rapean Internetetik lortutako oinarri bat jarri, eta gainean abesten da. "Kalean gaztetxoak bozgorailuekin ikusten dituzu korroan abesten, ez duzu gehiago behar. Doan da". Baina oso garrantzitsua da rap musika "aktiboki" entzutea, Moisesen iritziz. "Aurretik asko entzun behar duzu, generoaren kodeak ezagutzeko. Rap-a entzuten dutenek, kode horiek barneratuko dituzte".

Moisés No Duermeren estiloa "jaso dugun guztiaren nahasketa" dela aipatu du; "aldi berean desberdintasunak egongo dira, gauza desberdinak bizi ditugulako". Kanpotik ikusten duen jendeak, eta rap musikara hain ohituta ez dagoen jendeak, "dena berdina" dela pentsa dezake, baina barrutik ezberdintasunak nabaritzen direla aipatu du musikariak.

Letrek eduki soziala, politikoa eta aldarrikatzailea zuten, "eta oraindik badute". Baina beste "alde batetik" jorratzen dituztela aipatu du: "Beste ikuspegi batetik, beste sentsibilitatetik. Arazoaren parte bagina bezala". Gertatu diren "gauza larriei buruz" abestiak egiten dituzte, baina abesti "leunagoak" egiten dituztela ere esan du. Ironiarekin edo zeharka lantzen dituztela aipatu du.

## Garapena

Rap-aren eszena azken urteetan "asko hazi" dela esan du Moisés No Duermek. "1999 eta 2000. urte horietan, guk ezagutu genuenean, oraindik ez genuenean rap-a egiten, kaseteak iristen zitzaizkigun eta gero pirateatutako CD-ak. Hori pixka bat beranduago izan zen". Walkman-etik Discman-era eman-

dako aldaketa horretan izan zen. "Oso erresiduala zen. Estatuan lau talde ziren". Oraintxe rap talde "infinitu" daudela aipatu du. "Rap-a eta hortik sortutako soinuak". Jende guztiak entzuten du, "populartzatuta dago". Bere garaian moda bat izan zen, gure artean gelditu dena. "Rap taldeak daude, rap-a erabiltzen duten taldeak daude... aniztasun gehiago dago". Subgeneroak ere sortu dira. "Lehen rap musika astunagoa zen, bakarrik gauzak esaten ziren, orain sonoritate gehiago dute, musikalidade gehiago". Komertzialagoa ere bada. "Irratian ere gauza gehiago entzuten dira. Nahiz eta rap musika ez den inoiz irratian asko entzun". Interneteko plataformetan, aldiz, abestiak oso entzunak direla aipatu du. "OT-tikateratuko musikariak baino entzunagoak, kasu askotan".

## Ikuskizuna

Rap-a, zuzeneko musika eta ikus-entzenezkoak biltzen ditu Moisés No Duerme y Los Noctambulos-en ikuskizunak. "Azken urteetako ibilbidea erreparatuko dugu, gehien bat, kale-ratu ditudan azken bi diskoak: *Leve* eta *La Alda*". Atera dituen abesti solteak ere bihar, larunbata, 20:00etan egingen duen Olatzagutiako kultur etxeko kontzertuan eskainiko ditu. "Zerbait anitza izango da. Raparen mugan mugitzen dena. Kontzertuaren alde bat rap klasikoagoa izango da, eta gero sonoritate berriagoak, abesti dantzagarriak...". Bitartean, zuzeneko proiektzioak eta musika egongo dira. Rap musika gustatzen zaionarendako eta "musikaz disfrutatu" nahi duenarendako kontzertua izango da.

Moisés no duerme ez dago ohituta "horrelako zirkuituetan" mugitzera. Are gehiago, kultur etxe batean lehenengo aldiz ariko da larunbatean. "Aurreko astean Iruñeko Zentralen jo genuen. Hilabete asko generamatzen jo gabe". Haien eszenatoki "tradizionalak" txosnak, herri festak eta horrelakoak dira. "Herri mugimenduak sortutako ekimenetan". COVID-19 birusak eratorritako guztiak "horiek geldiarazi" zituen.

**2000. HAMARKADAREN HASIERAN KORRONTE BERRI BAT IZAN ZEN HIP HOP KULTURA**

## Nafar Pirinioetan hasiko da Bertsolari Txapelketa

Idoia Granizo bertsolari altsasuarra txapelketan mustuko da bihar, larunbata, Izabako final laurdenean

SAKANA

Bihar, urriak 2, larunbata, 17:30ean, hasiko da Nafarroako Bertsolari Txapelketaren final laurdena Izabako Zineman. Idoia Granizo Uribarrena altsasuarra txapelketan mustuko da, eta lehenengo saioan aritzeagatik "pozik" dago **BELEIXE IRRATIAN** egindako elkarrizketan aipatu bezala (*guaixe.eus*-en entzungai). Harekin batera Julen Zelaieta Iriarte, Eneko Fernandez Maritxalar, Endika Legarra Nuin, Patxi Castillo Graciarena eta Aitor Irasortza Arrizurieta bertsolariak

ariko dira. "Pixka bat maskulinoa". Alaitz Rekondok aurkeztuko du saioa, eta irabazleak zuzenean lortuko du finalurrekoetan egoteko txartela; zehazki, Altsasu-koan. Beste bertsolariek final-laurdenen fase osoa bukatu arte itxaron beharko dute, sailkatzerik duten ala ez jakiteko.

24 bertsolarik jokatu dute final laurdenetan. Haietatik 18 sailkatuko dira hurrengo faserako, finalurrekoetara. Lehenengo finalurrekoa Altsasun eginen da, azaroaren 1ean, Iortia kultur gunean.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

## Amaigabeko ipuina

Hala da, atzo, irailak 30, Batmanek 92 urte eta erdi bete zituen! Zorionak, Bruce Wayne jauna! Ulertzen dut ez dela oso data borobila, baina gaurko gaiaz hitz egiteko aitzakia paregabea da. Hain zuzen ere, nola da posible hainbeste denboraren ondoren tipoa inoiz baino famatuagoa izatea?

Beno irakurle maitea, erantzuna oso simplea da: Bruce Wayne jauna marrazki bat besterik ez da.

Itxoin, itxoin. Irakurri berri duzuna agerikoa da eta txantxa dela ematen badu ere, horretan datza komiki amerikarren superheroi industria. Ez, ez dut gosaltzeko belar arrarorik edan, segi irakurtzen: Batman beti izango da Bruce Wayne, baina autore ezberdinek Bruce Wayne ezberdinak sortuko dituzte. Gidoilariak eta marrazkilariek bata besteari pasatzen diote Bruce Wayne, futbol pilota bat balitz bezala. Betiko xehetasun garrantzitsuenak errespetatu, autore bakoitzak bere xarma emango dio pertsonaiari eta denboran zehar pertsonaia hau eboluzionatzen joango da, pixkanaka.

Haren lehengo komikietan Batman superheroi arrunta zen. Indartsua, abenturazalea, tipo jatorra. Halere, laurogei urte eta gero (eta Frank Millerren eskuetatik pasa ondoren, batez ere) gaur egungo Batman hotz, serio eta jenio txarreko antiheroi aurkitzen dugu. Gainera, Batmanek zorte ona izan du publikoaren gustukoa izan delako beti. Beste hainbat superheroi oso famatuak ziren haien garaian, eta orain inork ez ditu ezagutzen. Gambito izena noizbait entzun al duzu? Badira ere alderantzizko kasuak. Inork esango ez balu ere, filmetan agertu baino lehen, Iron Man mindundi hutsa zen! Eta haren trajea hozkailu baten bizkarra baino zakarragoa.

Azken finean, autore ezberdinek istorio ezberdinak sortzen dituzte eta superheroi unibertso hori beraie esker da aberatsa. Askok esango dute gehiegizkoa dela, ez dagoela munduan denborarik dena irakurtzeko (eta nik arrazoia ematen diet), baina pentsa munduko paisaia guztiak ez ditugula bisitatzen, ederrenak baizik.



Irati Urrestarazuren 'Te flujo' erakusketa.

## Espazioa bera ulertuz

Lehenengo aldiz Irati Urrestarazu artista altsasuarrak erakusketa mustu du herrian, lortia kultur gunean. Arrazoia alde batera uzteko eta "bizitzeko" instalazio eskultorikoa da 'Te flujo'

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU A asimilatze denbora pixka bat beharko duela esan du Irati Urrestarazu Zubizarreta artistak. Lehenengo aldiz Altsasun, herrian, erakusketa bat mustu du. Aurreko ostiralean izan zen, eta egun "nahiko estresanteak" izan direla aitortu du. Altsasuko kultur zerbitzuak Bilboarteko *Albo batera utziz* erakusketa Iortia kultur gunean erakustea proposatu zion, baina "Bilboarteko erakusketa areto horren neurria" egina dago. *Te flujo* erakusketa, beraz, Iortia-aren erakusketa gelaren espaziorako pentsatuta dago. Espazioan zuenarekin "jolastu" du, espazioa bera ulertuz. Instalazioa urriaren 10era arte ikusgai egonen da.

Herrian erakustea "erraza" dela esan du Urrestarazuk. "Etxean zaudelako eta familia giroan zaudelako", baina herrietan arte garaikidea erakustea ere "momentu batzuetan zaila" dela aitortu du. "Asimilatze zailagoa delako".

Espazioaren berezitasunak ulertzen saiatzen da. "Askotan molestetzen didaten gauzak ere neureganatzen ditut". Iortia-ko

erakusketan, esaterako, horma korridoreak kentzea erabaki du, eta leihoen atzean ikusten den lorategitxo "neureganatzea". Salan sartzea. "Bat-batean agertu ziren aurretik ikusten ez ziren su itzaltzeak". Konponbidea aurkitu zuen: "Errekor irudia jarri nuen keinu hori eginez. Gero jendeari komentatzen nion, eta ez zen horretaz konturatzen. Baina ni lasai gelditu naiz".

### 'Te flujo'

Zer kontatzen du? "Artista gehienoi galdera hori ez zaigu batere gustatzen". Azaldu duenez, garai batean, artea gauzak kontatzeko instrumentu bezala erabiltzen zen, Erdi Aroan erlijiorako, Sobiet Batasunan politikoki, 1970ko hamarkadan... "Baina orain instrumentalizazio horretatik urrunago dago. Artea gauzak

**IRATI URRESTARAZUK KONTRASTEekin JOLASTEN DU, BAITA 'TE FLUJO' ERAKUSKETAN ERE**

kontatzeko tresna moduan erabili daiteke, baina autonomia ere bada". Pertzepzioetik begiratu behar da, ez arrazoinamendutik.

*Te flujo* ikusteko, momentu batez, arrazoinamendua alde batera uztea proposatzen du Urrestarazuk. "Lehenengo esperimentatu, bizi, eta gero arrazoinamendua sartzen utzi". Ezin du hitzekin azaldu, "hori delako arteak duena". Arteak gauzak sortzen ditu, eta guztiak ez dute existitzeko arrazoi bat behar.

"Badu zerbait basatiaren eta sentikorraren artean". Bidoiak, plastikoak, erretxinak, urrea, zilarra, kobrea... Eta espazioa. "Bidoiak eskuz apurtu ditut. Hasieran tresnarekin apurtzea pentsatu nuen, baina oso finak ziren eta ez zen eskuhartzea nabaritzen. Lagarri bezala ikusten dira eta oso polita da". Erretxinarekin ura izan zitekeen zerbait sortu du, "batzuk esan dute akuario bat diruditela". Koloreek estetika berezia ematen die artelanari. "Sentikorra". Kontrasteekin jolasten du. "Erabilerririk gabeko gauzak zerbaitetan bihurtzen ditut". Harreman hori ikustea gustatuko litzaioke.

# "Oso gustura gaude lortutako uztarekin"

Arbizun herri baratze ekologikoak jarri dituzte martxan, eta Ainara Razkin Barandiaran erabiltzaileetako bat da. Lehenengo uzta ona ateratu dute eta dagoeneko sasoi berrirako prestatzen ari dira baratzea

**Erkuden Ruiz Barroso** ARBIZU

## 1 Zergatik herri baratze bat izan?

Betidanik gustatu izan zait baratzea, baina egia esan ez dut inoiz aukera eduki horrelako lurrik edukitzeko. Gasteizen bizi izan naiz, eta hona etorri naiz, gurasoen herrira. Orduan, aukera gutxi lurra izateko. Osabek eta badute. Gustatzen zait, eta ingurune hezkuntzan lan egin izan dut ere, eta bertan baratze bat genuen. Sentsibilizazio handia dut baratzeakiko.

## 2 Nola jakin zenuen Arbizun aukera hau zegoela?

Udalak publiko egin zuen. Buzonea egin zuen, Whatsapp talde bat daukagu, eta hor ere abisatu zuten. Aurretik ere udal programan bazetorren. Baratze ekologiko komunitarioen asmoa aspaldidanik neukan irakurria. Aurten zinegotzi bati galdetu nion, eta berehala buzoneoa hasi zuten eta prozesua hasi zen.

## 3 Zein izan da prozesua? Zer egin behar izan duzue eskatzeko?

Baldintzak ziren arbizuarra izatea eta lurrik ez edukitzea. Horrela gara denak, jakintza gutxi baina gogo asko! Maiatzean lehenengo buzoneoa egin zuten eta abisatu zuten izena ematea herriko etxean egin behar zela. Bilera batera deitu gintuzten zozketa egiteko. Partzela desberdinak direnez, lurra desberdina denez, zozketa egin zuten. Egia esan, izena eman genuen denak hemen gaude; hamabost bat. Urtero kuota bat ordaindu behar dugu, eta bost urterako eman digute. Jende gehiago apuntatzen bada gu ateratu beharko gara, eta jendea joaten bada beste batzuei emango diete.

## 4 Partzela guztiak berdina dira, ezta?



Ainara Razkin Barandiaran, baratze ekologiko komunitarioetako erabiltzailea.

Uste dut esan zutela 60 metro karratu dituztela. Itxuraz gehiago ematen dute, egia esan. Baina lurra desberdina da. Hau Kale Nagusiko obra egin zutenean hondakin horiek guztiak hona botatzeko erabili zuten. Orduan, toki batzuetan gehiago landu behar dugu harri gehiago daudelako. Baina ez gara kexatuko.

## 5 Maiatzean prozesua hasi zuten, udarako justu.

Maiatza amaieran eman ziguten eta aste horiek izan ziren... denak topera!

## 6 Nola jakin duzue zer eta nola landatu?

Gure artean galdezka eta dakienari galdezka. Osabak asko lagundu dit. Nekazal dendetan ere joaten zarenean gomendioak ematen dizkizute. Hemen zer

jarri, zein den bakoitzarendako garai onena...

## 7 Nolako izan da lehenengo uzta?

Baratzean elkartu garenean eta elkarri galdezka aritzen ginenean esaten genuen: lehenengo urtea da, aurten proba, eta hobetzen joango gara. Baina egia esan oso gustura gaude lortutako uztarekin. Zer esker onekoa den baratzea.

## 8 Zer landatu duzue?

Gehienok antzeko: babarrunak, tomateak, tipulak, porruak geroreago, kalabazina, kalabaza... hemengo baratzeetan ikusten dena. Nire aldamenekoa marokoarra da eta beraiek erabiltzen dituzten belar batzuk ere landatu dituzte, zilantroa eta horrelakoak. Horrela ikusten duzu ere gauza desber-

dinak nola landatzen diren. Gure esperientzia eta jakintza kontuan hartuta uzta nahiko ona izan da.

## 9 Zenbat denbora eskaintzen diozue baratzeari?

Denetarik dago. Batzuk gutxi, eta nabaritzen da. Baina gero, egia esan, jaso dituzte gauzak. Bakoitzak bere egoera pertsonala dauka. Uda nahiko lehorra eta beroa egin duenez, gauean jende dexente elkartzen ginen ureztatzen. Bi baratze artean udalak ur toma bat jarri du. Eskuz egin behar da. Udalak jarri zuen baldintza bakarrenetarikoa erabiltzea izan zen. Bestela, kenduko dute.

## 10 Zer du baratze bat izateak?

Nik betidanik nahi izan dut. Gozada bat da. Nire unetxo

hori zen. Egoeraren arabera da. Egun guztia hurrekin pasa ondoren hona etortzen nintzen ureztatza eta nire momentutxoaren zena. Gero ikustea lurra ematen dizuna ere. Ikasketa bat da: lurra, landareak... Eta gainera uzta jasotzen duzu eta hori jaten duzu. Umeentzako ere oso aberasgarria da. Nire alabak gustura etortzen dira eta ikasten dute. Txikitatik jasotzen ari dira.

## 11 Udazken eta negurako prest?

Bai, hasi gara. Azen familiako horiek guztiak, babak, eskarolak... Orain agian bajoi pixka bat ematen du, ez da udako lasaitasun hori, baina guk ongarritu nahi dugu eta baratzeari bizitza pixka bat eman.

**EZ AHAZTU ZURE HITZORDUAK!**

**21€ -TIK HASITA**

**ESKATU ZURE 2022KO EGUTEGIA**

**Zureaz galdetu!**

ESKATU ZURE HITZORDUAK 2022KO EGUTEGIA

**gik** DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu